

Kirola

Mendiari buruzko dokumental saridunak Zornotzako
Andres Espinosa Gogoratuz zikloaren barruan > 16



JAIK!

IURRETA

20 urtez mundua aldatzen

Elorrioko Kainabera gobernuz kanpoko erakundeak 20 urte bete ditu, eta erakusketa bat zabaldu dute ibilbidea azaltzeko. Bakoitzak bere alea ipinita, mundu justuagoa lortu gura dute. > 4



AS Bayonne-ko errugbilari batzuen eraso sexistak salatu dituzte

Irail hasieran Durangoko Rugby Tabernan eraso sexistak jasan zituztela salatu dute emakume batzuek Durango Rugby Taldeari bidalitako gutun batean. DRT-k ekintzak gaitzetsi ditu eta elkartasuna adierazi die. Talde hori ez du berriro gonbidatuko, eta etorkizunean antzerako egoeren aurrean aplikatzeko protokoloa landuko dutela aurreratu dute. > 18

“Blogean egindako lana liburu euskarrira ekartzeko modua izan da ‘Bille’ kaleratzea”

Unai Ormaetxea | Idazlea > 11



LA GIPUZKOANA
JATETXEA
Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA
Tel.: 946 811 005

Eguneko menua
astelehenetik larunbatera.
Afariak ostiral
eta larunbatean.
Menu bereziak enkarguz.
Berezitasuna,
“arrautza apurtuak”



Zornotza > 2

Moto kontzentrazio solidarioa,
La Otra Miradaren eskutik

Berriz > 3

50 urteren ostean, hainbat
berriztar elkartuta berriro

Durango > 6

Geltoki zaharreko lurrak
berraztertzea eskatu dute

Durangaldea > 9

Domekan, Legebiltzarrerako
hauteskunde eguna

Herririk herri



lazko motor kontzentrazioko une bat. Javier Cantero

Moto kontzentrazio solidarioa, domekan, Ogenbarrenako jaietan

Batutako dirua Senegalgo herrixka bateko eskolarako izango da

ZORNOTZA Joseba Derteano Zornotzako Ogenbarrena auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Jaien barruan, La Otra Mirada elkarteak moto kontzentrazio bat antolatu du domekan, hainbat eragileren laguntzagaz. Batutako dirua Senegalgo herrixka bateko eskolara argindarra eramateko baliatuko dute.

Aurten hirugarren aldia egingo du moto kontzentrazioak, eta Ogenbarrenako jaien barruan sartu dute, lehenengoz,

auzoko elkarteak horrela eskatuta. Etzi, 11:30ean, Zornotza ingurutik moto ibilaldia egingo dute. Bazkalordurako barbakoa bat ere prestatu dute. Izenematea 10:00etatik aurrera egin daiteke Ogenbarrenan bertan, 8 eurotan (moto ibilaldia, barbakoarako txartela eta motxila zein txapel bana). Gura duenak barbakoarako bakarrik den txartela ere eskuratu dezake, 4 euroren truke. Txistulariekin girotutako poteoagaz (13:30ean

zein herri kirol erakustaldiekin (16:30ean) ere gozatu daiteke egun horretan.

Joan zen asteburuan Iurretan antolatu zuten lasterketa solidarioak izandako harreragaz ere pozik daude La Otra Miradako kideak. Ia 200 lagunek parte hartu zuten lasterketan, eta Iurretako 46 establezimenduk bat egin zuten ekimenagaz, diru ekarpen zuzenak eginez eta zotz egin zuten otzararako produktuak emanez.

Zornotzak kudeatuko du aurten Gaztedi Plana

Orain arte, Amankomunazgoaren esku egon da

ZORNOTZA J.D. Aldundiko diru-laguntzak aprobetxatuz, eskualdeko herririk gehien artean diseinatutako plana Amankomunazgoak kudeatu du azken hiru urteetan. Aurten utzi egin du zeregin hori, eta Zornotzako Udalak bere gain hartu du ardura. Gazteen

artean enplegua sustatzea du helburu nagusi.

Joan zen barikuko udalbatzarrean aho batez onartu zuten Zornotzako Udalaren eta Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Mallabia, Mañaria eta Zaldibarko udalen arteko hitzarmena.

Ametx Erakundetik kudeatuko dute plana. Udalarik ez dio gainkosturik eragingo Andoni Agirrebeitia alkateak azaldu duenez. Gaur egun dituzten baliabideekin jardungo dute.

Plana garatzeko 107.000 euro dituzte. Horietatik 47.000 euro 18-29 urte arteko gazte ekin-tzaileei bideratuta egongo dira. Pertsonako 1.100 eurorainoko laguntza jaso ahalko da; gehienez 3.300 euro, proiektua hiru lagunekoa bada. Diru-laguntzak azaroan zehar eskuragarri egotea da asmoa.

Elena Ariznabarreta
La otra Miradako kidea

“Ospitaleetan oinarritzko materiala falta da: oheak, hozkailuak...”



Elena Ariznabarretak Senegal-en eman ditu abuztuko 20 egun. La Otra Mirada han aurrera eramandako proiektu bat ikuskatu eta hemendik hara eramandako materiala banatu du eskolatan.

Zer helburugaz joan zinen Senegalera?

Hasieran, Senegal iparraldeko herrixka batean egon nintzen. Eskola batera ura eramateko kanalizazioa egin dugu, eta hori ikustera joan nintzen. Hemen egindako kanpainan batutako eskola-materiala ere eraman nuen. Gero, Senegal hegoaldeko herri batera joan nintzen. Hango lau eskolen artean ere hemendik hara eramandako materiala banatu genuen.

Zer beharrian gehiago dituzten jakitera ere joan zinen.

Bai, esaterako, artoa irintzeko errota bat gurako lukete. Erregaiekin funtzionatzen duen horietako bat, han inguruan ur gutxi dago eta. Orain eskuz egiten dute irina eta oso gogorra da.

Han inguruko ospitaleak bisi-tatu dituzu. Zer aurkitu duzu? Baten batek pentsatu dezake, ospitalean egongela berri bat edo antzerako gauzak eskatuko zituztela, beharbada. Ez da horrela. Hemengoek eta hangoek ez dute zerikusirik. Oinarritzko materiala falta zaie; oheak eta koltxoak falta zaizkie, esaterako. Beste batek txertoak gordetzeko hozkailu bat behar zutela esan zidan. Kontuak atera hortik!

Zelako esperientzia izan da? Zelan hango bizilagunekin?

Oso ondo. Hango zonaldeko agintari batek eta bertako bizilagunek egundoko harrera egin ziguten eskolara materiala banatzera joan ginenean. Herri horretan ume guztiak eskolara joan daitezen lan egiten duen elkarte bateko ordezkariekin ere batu nintzen. Batez ere, neskak eskolaratu daitezten gura dute. Izan ere, sarritan, familia batek eskola materiala erosteko diru nahikorik ez duenean, neskak izaten dira etxean geratzen direnak.



Joan zen barikuko udalbatzarrean aho batez onartu zuten hitzarmena.

anboto

komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko irailaren 23a
14. urtea - 646. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



50 urteren ostean, hainbat berriztar berriro elkartuko dira

Urriaren 1ean, orain 50 urte bizitako oporrak gogoratuko dituzte

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Urriaren 1ean beraien sorlekuan elkartuko dira berriro, Berrizen, orain 51 urte herriko

abadea zen Don Ion Onandiak oporretan eraman zituen lagunak. Herriko abadeari bururatu, eta oporretan lagunekin

lehen aldiz egoteko aukera izan zuten hainbat gaztek, duela mende erdi. Lehenengo urtean 12 bat mutikok Larrunen,

eta hurrengoan 30 bat neska-mutilek Orreagan izan zuten lagunartean egun batzuk pasatzeko aukera, beraien egunero-ko bizimodutik aldentuta.

“Don Ion Onandia abadeari esker, herriko hainbat gazte txok une politak bizi izan genituen hamasei bat urtegar”, aitortu du Juan Luis Gorroño topaketa honen antolatzaileak.

Gainera, opor haiei esker, beraien arteko harremana sen-

Onandia abadeak antolatuta, orain 50 urte Larrunera eta Orreagara joan ziren hainbat gazte

dotzeaz gain, Orreagako herri-tarrek hartueman estua sortu zuten. Gorroñoren hitzetan, “gure artean giro paregabea sortu zen, eta Orreagako ehun bat lagun Berrizko jaietara etorri ziren”.

Harreman on hori gogora ekarri eta duela mende Erdiko pasadizoak gogoratzeko asmoz, urriaren 1ean, mahai inguruan batuko dira hogeitabi berriztar, beraien artean, Don Ion Onandia abadea.

The Romanticos taldearen kontzertua U2 tabernan

MAÑARIA M.O.

Blues doinuak ailegatuko dira bihar Mañarira, U2 tabernan antolatu duten kontzertuaren harira. Izan ere, The Romanticos taldeak zuzeneko eskainiko du 22:30ean hasita. Musika gozatzeko aukera ederra, beraz.

Iker Piris gitarrista tolosarraren taldea da The Romanticos. Musikan bere kabuz hasi

Musikan bere kabuz hasi zen Piris, baina urte batzuk pasata, Musikene goi eskolan ikasi zuen

zen Piris, baina urte batzuk pasata, Musikene goi eskolan egin zituen ikasketak. Beragaz batera, Riky Ávila eta Adrián Carrera madrildarrek osatzen dute taldea. Bluesa, swinga edota rhythm&bluesa uztartzen dituzte.



Orain 50 urte ateratako argazkia.



107,8
Frekuentzia

Durango irratia
Gertukoena

Irrati tailerrak eskolartekoekin, Gorabide eta Immigrazio sailarekin elkarlana eta Durangoko elkarte eta kirol klubene parte-hartzea.

Larrasoloeta kalea, 5
48200 Durango, Bizkaia
Tf.: 946 21 55 99

durangoirratia@durango-udala.net
www.durango-udala.net/durangoirratia

 **Durango Irratia**
<https://www.facebook.com/durangoirratia>

 **@Durango_Irratia**


durango irratia


DURANGO
Udala • Ayuntamiento



“Bakoitzak bere alea ipini, eta justizia lortzea da gure asmoa”

Kainaberak 20 urte bete ditu, eta ibilbide hori gogora ekarri dute lau kidek

ELORRIO Markel Onaindia
Mundua aldatzeko esperantzaz egiten dute borondatezko lana, txikitasunetik ere pausoak eman ahal diren konbentzimenduagaz. 20 urte bete ditu Elorrioko Kainabera gobernuz kanpoko elkarteak, eta argazki erakusketagaz eta Lajwad eta Caritasegaz batera emango duten berbaldiagaz –hilak 28, 19:00etan, Iturrin– ospatuko dute. Hala ere, ospakizunak ospakizun, laguntza beharrik egongo ez litzatekeen egoera utopikoa amesten dute. “Oxala GKE lez desagertu eta lagun koadrila bihurtuko bagina”, dio Inma Escribanok umoretsu. “Baina mundua zelan dagoen ikusita...” jarraitu du Jose Mari Azkargorta *Pitik*, errealtate gordina solasaldira ekarriz.

Piti izan zen Kainaberaren sortzaileetako bat, eta betaranoetakoak dira Escribano, Juan

Mari Lersundi eta Jose Luis Gomez. Duela 50 bat urte Elorrioko Marianisten ikastetxean egondako Manolo Martinez irakasleagaz hasi zen elkartearen istorioa. Abade egin, eta Kolonbiara bidali zuten; handik, hartumana mantendu zuen *Pitigaz*, eta ondorioz, behartsuendako arropa bidaltzen hasi ziren Elorriotik –Kainaberak ez du elizagaz loturarik–.

Bogotako Danubio Azul auzoan eskola bat eraikitzeko dirua batu zuten. Hasieran, Lourdesko Ama ikastetxeko guraso elkarteak ematen zuen babes legala, baina gero, elkarte propioa sortzea erabaki zuten. “Deialdia egin, eta gure sorpresa izan zen hogeitik gora batu ginela, ez genuen espero”, gogoratu du *Pitik*.

Martinez eta Zubia
Horrela, Martinezek Kolonbian zituen ametsak egia bihurtzeko

laguntzen hasi ziren, hango Fe y Alegría elkarteagaz elkarlanean. Eskolak, etxe sozialak... auzorik auzo lanari ekin zioten. “Fe y Alegríak hezkuntza es-

“Behartsuei laguntzea gura genuen, baina konturatu ginen mundua konplexuagoa dela”

“Gogoz eta indartsu jarraitzen dugu, eta gazteei animatzeko deia egin gura diegu”

kaintzen zuen, estatuak ez zuelako ematen”, esan du Gomezek.

Kolonbiatik beste lurralde batzuetara hedatu zuten elkar-

tasuna. Tanzanian Luis Zubia misiolari elorriarraren eskutik hasi ziren lanean, eta Nikaraguan etxeak eta osasun postuak ezartzeko ideia sortu zen Mitch urakanaren ostean. Bestalde, ume errusiarrak ekarri zituzten Elorriora hainbat udatan. Kainaberako hainbat kide egon izan dira herrialde horietan, egitasmoak bertatik bertara bultzatzen.

Gainera, laguntza ematen ere egon dira; adibidez, Escribano –medikua da–, Nikaraguan egon zen urakanaren ostean, eta duela hile batzuk Grezian egon berri da errefuxiatuekin. “Lehen-go Europa famatu horrek ez du ezertarako balio, abandonatuta dauzkagu”.

“Begiak zabaldu”

Escribanoren arabera, Kainaberan egoteak beste ikuspegi bat eman zien: “Behartsuei laguntzea gura genuen, baina konturatu ginen mundua konplexuagoa dela, eta ez direla behartsuak berez, guk pobretzen ditugulako baizik. Begiak zabaldu zitzaizkigun. Bakoitzak bere alea ipini eta justizia lortzea da gure asmoa”. Adibidez, munduaz ikasteko eta herrian

sentsibilizatzeko, Maiatzeko Hitzaldiak zikloa antolatzen dute urtero Elorrioren, Lersundik kontatzen duenez: “Hedabideek munduaz saltzen digutenaren aurrean, beste ikuspegi bat jaso gura genuen adituekin”.

Elorrioren eragiten

Ez dira bizi munduari begira bakarrik, Elorrioren ere eragin gura dute. Berbaldiez gainera, jaietan eta Gabonetan jaialdiak garatu izan dituzte, ateratako diruagaz proiektuak sustatzeko, eta gaur egun herriko Elikagaien Bankuan parte hartzen dute. Ferixa Nausikoetan herrian bizi diren kulturen berri ematen dute, integrazioa lantzeko asmoz. Aurten, errefuxiatuen aldeko Zaporeak taldeari eman diote jaietan lortutako dirua.

20 bat laguneko taldeak eta 70 bat bazkidek osatzen dute Kainabera. Hasiera hartatik 20 urte joan arren, aurrera begiratzen dute. “Gogoz eta indartsu jarraitzen dugu, eta gazteei animatzeko deia egin gura diegu”, azaldu du Lersundik.

Elorriarrei eskerrak eman dizkie *Pitik*. “Elorrio sentsibilizatutako herria da. Behar izan denean, jendeak erantzun du”.



Manolo Martinez Ciudad Bolívarren, Bogotan.



Kolonbian altxatutako eskola baten argazkia.

Unibertsitaterako bidaiak diruz lagunduko ditu udalak

ELORRIO M.O.

Unibertsitatera doazen ikasle elorriarrek garraioaren gastuak arintzeko aukera edukiko dute hemendik aurrera. Izan ere, bidaiak diruz lagunduko ditu Elorrioko Udalak. Elorriotik inguruko unibertsitateetara joateak ikasleei “zama ekonomiko handia” suposatu izan diela esan du udalak prentsa ohar bidez, eta, modu horretan, gazteen aspaldiko eskaera bati “irtenbide txiki bat” eman gura izan diotela. Horrelako laguntza bat ematen den lehenengo aldia dela adierazi dute ordezkariak.

Laguntza eskatzeko epea hasita dago, eta urriaren 30ean amaituko da. Udaletxe-ko Herriarren Arreta Zerbitzuan egin ahal dute eskaera 17 eta 30 urte arteko ikasleek. Azken urtean langabezian egotea izango da baldintzeta-ko bat, eta 36 kreditutan matrikulatuta edo 18 kredituko azterketetara aurkeztea izango da beste betebeharrak.

Lehen aldi hau proba lez hartu du udalak, eta horregatik, 2.500 euro bideratu ditu. Eskaria handiagoa bada, hurrengo urteetan partida handitzeko asmoa agertu du.

Kulotxa auzoko jaiak ospatuko dituzte, lehen aldiz, bihar

ELORRIO M.O.

Ferixa Nausikoak pasa berri dira, baina Elorrión jai-giroan murgilduko dira berriro. Kulotxa auzoko jaiak ospatuko dituzte bihar, eta lehen aldiz, gainera. Kuarenta, Lourdes eta Txanberri auzoak batu egin ziren etxe berrien eraikuntzaren eraginez, eta, horrela, Kulotxa deitu izan diote eremuari. Inguruko merkatariek antolatu dituzte jaiak, jendea erakartzeko. “Hemen ere denak eta tabernak badaudela erakutsi gura dugu”, esan du Txaber San Pedrok.

11:00etan umeentzako jolasak egongo dira. 12:00etan potea egingo dute, eta 14:00etan bazkari herrikoia. Gero, kale kulturen erakustaldia eta txokolatada. 20:30ean kontzertu-faria Xelain, eta 22:30ean Sei Urteren kontzertua.

Astxikiko pagoa birlandatzera joateko deia egin dute biharko

Joan zen asteburuan haizeak bota zuen pago “mitikoa” birlandatu egingo dute

ABADIÑO J.D./I.E.

Haizeak bota zuen joan zen astean Astxikiko pago ezaguna. Arbola hori Anbotoko mendi-

kateraren paisajeko elementu bitxi eta maiteenetako bat zela jakinda, berau birlandatzeko deia egin dute. Biharko ipini

dute hitzordua. Abadiñoko Ferialekutik abiatuko dira, 09:00etan, haizeak botatako pagoa arteztera. Tresneria eta



Aurreko astean jausi zen pagoa, mendizale eta argazkilarientzat “majikoa” zena.

lurra Astxikira igotzeko, motxilak eramateko eskatu diete irteerako antolatzaileek biharko hitzordura agertzen direnei.

Birlandaketa antolatu dutenek Unai Iturriaga bertsolari durangarrari bertso bat egiteko ere eskatu diote, eta asteen zabaldu dute sare sozialen bitartez: “Astxikiko pagoa/zan pago tentea/suertatu da haizeak/behera botatea/Bertan alkatu gura/genduke jentea/ta sus-traiak barrero/lurrari emotea”.

Mendizaleentzat ezezik, argazkilarientzat ere “elementu majikoa” da Astxikiko muino-ko arbola bakar hori. Imanol Marrodán argazkilaria bilbotarrak 30 urte daramatza arbola horri argazkiak egiten. “Niretzat beti izan da leku oso berezia”, dio. Gertakariaren berri izan bezain laster, jausitako arbolen ezkurak biltzera igo da mendira. Ehunka bildu ditu. “Muino horretan jausitako arbolen ondorengo bat hazteko aukera izango dugu kimuak landatuz gero”, adierazi du.

‘Abadiño Sex’ zerbitzua kurtso honetan ere martxan

ABADIÑO Itsaso Esteban

Sexualitate eta berdintasun arloko aditu talde baten aholkularitza jasotzeko aukera izango dute Abadiñoko gazteek ikasturte berri honetan ere. Astelehenero, 17:00etatik 19:00etara, Pino plazako lokalean egongo dira aholkulariak, gazteei, gurasoei zein irakasleei ere aholkularitza eskaintzeko prest. Gainera, ikasturtean zehar, sexualitatearen eta giza-harremanen inguruko gaiak eztabaidatu eta tailerrak eta bideo-forumak ere antolatuko dituzte zerbitzu horren bitartez. Ekimen honen azken helburua, “sexualitateari buruzko mitoak haustea eta berdintasunaren aldeko baliok zabaltzea” da.

Astelehenero, 17:00etatik 19:00etara, Pino plazako lokalean eskatu daiteke adituen aholkua

Edozein zalantza dutenak sare sozialen bitartez ere ipini daitezke aholkulariekin kontaktuan, edo baita, helbide honetara idatzita ere: sexu aholkularitza@abadiano.org.

Udalak 2014tik eskaintzen du zerbitzu hau Lahia-Nahia sexologia elkartearen eskutik.

HEMEN eta ORAIN DENON HERRIA



Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakariaga

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba

BOZKATU **ehbildu**

Otxandioko bonbardaketaren aztarnak jardunaldien abiapuntu

Urriko asteburuetarako ibilbideak antolatu dituzte zortzi herritan

DURANGALDEA J. Guenetxea *Etzetik kanpo* leloarekin, migrazioa eta kultura-ondarea izango dira aurtengo Europako Ondarearen Jardunaldian antolatutako ekintzen oinarria. Durangaldean oinez egiteko ibilbideak diseinatu dituzte. “Herrietako lekuak bisitatzeko aukera izateaz gain, leku horietako historia eta istorioak ezagutzera emateko erabiliko dugu”, azaldu dute antolatzaileek. Gainera, leku bakoitzeko historiagaz lotura duten pertsonaiak ere ibilbideetako protagonista bihurtuko dituzte. Otxandio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Berriz, Zaldibar eta Elorrioko udalek parte hartu dute Gerediaga Elkarteak koordinatutako egitarauan.

Otxandion abiatuko da Europako Ondarearen Jardunaldiak lehenengo ekimena. Urriaren 2an, bonbardaketaren

aztarnak jarraituko dituzte. Otxandiokoa Euskal Herrian aurrez egindako lehen bonbardaketa izan zen. Andikona Plazan, jaietan zirela, gerra abioi faxistek 61 lagun hil zituzten orain 80 urte. Otxandioko hiribilduan zehar egingo den ibilbidean gertakari tragiko hartako istorioak eta erasoak utzitako aztarnak ezagutzeko aukera izango da.

Urriaren 15etik 23ra bitartean, Elorrioko jauregiatiko lorategietatik pasean ibiltzeko proposamena egin dute. “Lorategiak eurak kultura, estiloa, garaia eta hainbatetan arte sortzailearen originaltasuna erakusten duen sorkuntza lan modura ulertzeko aukera ematen dio bisitariari”.

Izurtza eta Mañaria ezagutzeko aukera izango da urriaren 22an. Ibilbide honetan idazle bi nabarmentzen dira. Nikolas Alzola Gerediaga *Bitaño* eta Eva-

risto Bustintza *Kirikiño*. Iurreta eta Garai lotzen dituen ibilbidea urriaren 23an eta 29an egiteko aukera izango da. XVII. mendeko baserriko elementu arkitektonikoak ikusteaz gain, Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* liburuan aipatzen den Hilarion Sarrionandia frantziskotarra edota Maria del Carmen de Gurtubay y Alzola Iurretako lehen markesa izendatu zutenaren istorioak ezagutuko dituzte.

Zaldibartik Berrizera joanez, pertsonaia esanguratsuak ezagutaraziko dituzte urriaren 29an eta 30ean. Zaldibarko leinu arteko protagonistak, bainuetxera etorritako bisitari ilustreak, Victor Garitaonandia Argia astekariaren sortzailea, Margarita Maturana Berrizko Mesedeetako Misiolarien sortzailea eta beste hainbat. (Izen-ematea: 673 005 981)



Andikona plazako bonbardaketan 61 pertsona hil zituzten.



Diego Amezua organojoleak kontzertua emango du Mañarian.

Eraso sexista bat salatu zuten Durangon joan zen asteburuan

DURANGO M.Z.

Durangoko Udalak jakitera eman duenez, beste eraso sexista bat salatu zuten joan zen asteburuan herrian. Udaleko ordezkariak euren gaitzespena eta arbuioa adierazi dituzte emakumeen kontrako indarkeria kasuen aurrean edota beste edozein motatako indarkerien aurrean. Horrez gainera, eraso sexista hau salatzeko egingo diren deialdi guztietan bat egingo dutela adierazi dute.

Hain zuzen ere, atzo iluntzerako elkarretaratzea deituen plataforma feministak.

Seigarrena, hilabetearen

Duela lau aste, bost eraso sexista jazo ziren Durangon, hamar eguneko tartean, eta azken honengaz hilabetearen gertatzen den seigarrena da.

Durangoko Udaleko ordezkariak euren arbuioa eta gaitzespena adierazi dituzte

“Jaurlaritzak 4 milioi lapurtu gura dizkigu”

Geltoki zaharreko lurrak, EH Bilduren berbagai

DURANGO M.O.

Jaurlaritzaren menpeko ETS enpresak geltoki zaharreko lurren hitzarmena bidali du udalera, eta EH Bilduk kritika gogorra egin du: “Eusko Jaurlaritzak lau milioi euro lapurtu gura dizkigu durangarroi”.

Koalizioak kontatu duenez, ETSk 4,2 milioi zor dizkio udalari, lurren kalifikazioa egitean baimendutako etxe kopurua gainditzeagatik –luxuzko bost dorre aurreikusi zituzten–. Baina hitzarmenaren, Traña-Matienaraino duen trenbideko lurrak eman eta obrak egiteaga-

tik kasik 4 milioi euro jaso gura ditu ETSk. EH Bilduren ustez, “lapurreta bat da lurrengatik kobratu gura izatea”, eta moduren batean parra egiteko asmoa ikusi du. Gainera, “urrearen prezioan espekulatzea” egotzi dio. Bestalde, ohartarazi du PSE-EEren agintaldian ere heldu zela “antzerako hitzarmen” bat, baina gobernu taldeak aurka egin zuela. Orain, “ez du jarraituko hartu”.

Lurren erabilera herritarrekin berraztertzea eskatu du EH Bilduk, eta berdegune baten aukera mahaigaineratu du.



Jon Bingen Landabidea eta Dani Maeztu prentsaurrekoan.

Sardinada eta paella lehiaketa Goienkaleko jaietan

DURANGO M.O.

Jaietan bete-betea sartuta daude Goienkalen. Izan ere, atzo jaurti zuten jaien hasierako txupinazoa, eta domekara bitartean ekitaldi ugari gertatu dituzte. Besteak beste, sardinada eta paella lehiaketa egingo dituzte bihar eguerdian.

Gaur, barikua, dantza ikuskizuna eskainiko dute lehenik, 19:00etatik aurrera. 20:00etan, Sugarri fanfarreagaz poteoa egingo dute, eta gaurerako Oihan Vega musika-jartzailea programatu dute.

Bihar izango da egunik handienetakoa. Sardinada 13:00etarako prestatuko dute, eta 15:00etan paellak aurkeztuko dituzte. Arratsaldean, igel eta karta lehiaketen txanda izango da; jai giroak gauez jarraituko du.

Zunba solidarioa

Domekan udal bandak kontzertua eskainiko du, 13:00etan, eta handik ordu erdira tortilla txapelketari ekingo diote. 17:00etan Angelman sindromedunen aldeko zunba solidarioan parte hartuko dute.

‘Iurreta Ezagutu’, herria ezagutzeko beste era bat

IURRETA A.B.

Udagoienari begira, herriko ikastetxeagaz hitzartutako bisita gidatuak egingo dituzte aurtengo. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako neskatokoei zuzendutako ekimena da ‘Iurreta Ezagutu’, eta bibliotekaren eskutik herrian zehar bisita ibiltariak egiteko aukera izaten dute. Ikastetxeagaz elkarlanean, “Iurreta modu ezberdin batean hobeto ezagutzeko aukera eskaintzea” da egitasmo honen helburua.

Bisitak begiraleen gidaritzapean egingen dira, oinez eta autobusez, eta herriko eta auzoetako gune eta txoko esanguratsuenak azaldu eta erakusten zaizkie gaztetxoek. Ikusitakoaren maketa bat ere egingo dute maila bakoitzeko ikasleek.

Kirola emakumeentzat

Bestalde, emakumeentzat kirola sustatzeko diru-laguntzak eskatzeko, 2016ko deialdia zabalik dago. Bai bakarkako kirolariei bai herriko elkarteetara zuzendutako laguntzak dira, eta urriaren 21a bitartean dago zabalik eskaria egiteko epea.

LAISTER ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK ERAIKIKO DIRA



Montevideo Etorbidea · 48200 Durango **Koordenadak: 43.169620, -2.631006**

INFORMAZIO GEHIAGO

946 46 20 41
www.sukia.com



Estás en tu casa.
Zure etxean zaude.

BBVA-ren
finantzaketarekin

Elkarteetako kideak dira, aurten, egutegi solidarioko protagonistak

Haurren minbiziaren ikerkuntzara bideratuko dute biltzen duten dirua

ZALDIBAR Itsaso Esteban
Bigarren urtez, haurren minbiziaren ikerkuntzarako dirua biltzeko egutegi solidarioa kaleratu dute Zaldibarren. Sorgin tabernan salduko dute, 5 euroan, eta batutako dirua Gurutzetako ospitalera bideratuko dute. Horrela egin zuten iaz ere: minbizia duten umeen familien elkartearen bitartez, gaitasun horren ikerkuntzara bideratu zituzten egutegiaren salmentatik eta tonbola solidariotik bildutako 12.000 euroak.

Iaz bezala, Zaldibarko herriarrak dira egutegi solidarioko argazkietako protagonistak, kultur zein kirol arloko elkarrekin dabiltzan herriarrak eta musikariak, esaterako. Iaz soinean arropa gutxi zutela agertu ziren egutegian hainbat

zaldibartar, baina bigarren edizio honetan jantzita agertzen dira guztiak.

Atzo egin zuten 2017ko egutegiaren aurkezpena, eta bertan izan ziren argazkietan agertuz kolaboratu duten hainbat zaldibartar: “Ekimen solidarioa zela jakitean, ez genuen parte hartzeko zalantzarik egin”, esan zuen Pilar Zaldibar nagusien elkartearen kideak. Ildo horretatik, denen parte hartzea eskertu, eta “Zaldibar herri txikia da, baina horrelakoetan, benetan handia” dela esan zuen Andoni Mesa ekimenaren bultzatzaileak.

Iaz egutegiaren lau mila ale kaleratu zituzten, eta aurten bi mila argitaratu dituzte. Mesak azaldu duenez, “iaz hainbat ale saldu barik geratu ziren”, eta kontrara egingo dute aurten:

“Salmenta ondo badoa, pentsatuko dugu gehiago atera behar ditugun ala ez, baina ez dugu alerik sobratzerik gura”.

Abenduaren 17ko tonbola

Egutegia kaleratzeaz gainera, abenduaren 17rako dirua biltzeko tonbola ere antolatzen dabilta, iaz bezala, Zaldibarren. Urte hasieratik jendea ematen ibili den askotariko artikulak salgai ipiniko dituzte egun horretan, eta askotariko ekintzak izango dira. Saskibaloia partiduak, bizikleta ibilaldiak, umeentzako tailerrak eta jolasak, eta kontzertuak izango dira, abenduaren 17an. Andoni Mesa antolatzaileak aurreratu duenez, Blanco y en Botella, Izaro, Hora Trece eta Insomnio taldeek joko dute, besteak beste.



Atzo egin zuten egutegiaren aurkezpena hainbat parte-hartzailek.



Herriko elkarteetako kideak dira, aurten, argazkietako protagonistak.

Pala torneoko finalak jokoan, bihar, Arrazolan

ATXONDO J.D.
Arrazolakoko Pala Txapelketako finalak jokatu dituzte zapatuan, 11:00etan hasita, Arrazolakoko frontoian. Finalista guztiek torneoaren osteko bazkaria —Erlaunpe elkartean— doan izango dute; irabazleek baita Goienkaleko

jaietako parranda ere. Lehen mailako finala Gaizka Amiano-Ibai Buruaga eta Mikel Kano-Asier Herreros-en arteko finalerdietatik irtengo da. Bigarren mailako finala Peio Axpe-Arkaitz Gerrikabeitia eta Asier Irazola-Asier Intxaurren arteko irtengo da.



Arrazolakoko pilotaleku irekian jokatu dituzte finalak.

Artisau-garagardoaren azoka egingo dute bihar

Gertuko bost ekoizleren produktua dastatu daiteke

OTXANDIO Joseba Derteano
Artisau-garagardoa egiten duten hainbat ekoizle bertatik bertara ezagutzeko eta euren garagardoa dastatzeko aukera egongo da zapatuan Otxandioko plazan. Taberna izeneko tabernak eta garagardo banatzaile batek Artisau-Garagardo Azoka antolatuko dute, lehenengoz, bost ekoizlegaz.

Eredu industrialetik irten eta garagardoa artisau eran ekoizten hasi diren proiektu berriak ugaritu egin dira azken lau bost urteetan, eta horientzat denentzat erakusleho izan gura du azokak.

Sondika, Gordexola, Gasteiz, Bilbo eta Medina del Pomar-eko (Burgos) ekoizle banak euren postua izango dute. Bisitariak euren buruz gehiago jakiteko zein garagardoa probatzeko aukera izango du.

Parrillada eta kale animazioa
12:00 aldera hasita, iluntzera arte antolatuko dute azoka. Bertan bazkaltzeko aukera ere egongo da, han inguruan parrillada bat egingo dutelako. Arratsalde osorako kale animazioa prestatu dute. Iluntzean DJ Lander Ground-en musikak emango dio errematea egunari.

Urriaren 10ean hasiko dira zuntz optikoa sartzeko Mallabian

MALLABIA J. Guenetxea
Urriaren 10ean ekingo dio Mallabiko Udalak herrigunean zuntz optikoa sartzeko obra zibilaria. Goitondon ekingo diete lanei, zanga bat zulatuz. Igor Agirre alkateak azaldu duenez, udalak bere gain hartuko duen zatia hilabeteko epean gertu izatea aurreikusiten dute. Zuntz optikoaren instalazioa Ermuako Udalaren Promosa enpresa publikoak egingo du.

Mallabiko Udalak 85.000 euro bideratu ditu obra zibilaria. Promosa enpresa publikoak, berriz, 65.000 euro inbertituko ditu.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

hitz liburudenda

artekalea, 23 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HITZ lekuz aldatu da!
Orain Artekaleko 23. zenbakian gagoz, lehengotik 20 metrora. Etorri bisitan!

Tortilla lehiaketa, bazkaria eta jokoa, nagusien Aste Kulturean

GARAI M.O.

Badator Garaiko nagusien Aste Kulturala. San Migel elkar-teak antolatzen du egitaraua, eta hain zuzen, San Migel egu-naren bueltan izaten da beti. Astelehenetik eguenera bitar-tean, tortilla lehiaketa, baz-karia eta jokoa izango dituzte aukeran, nagusiak elkartu eta ondo pasatzeko aitzakian.

Karta jokoa Otea-Loran el-kartean egingo dute, egunero, 17:30ean. Astelehenean, hilak 26, briska txapelketa jokatu-ko da, martitzenean tutekoa, eta eguaztenean musekoa. Eguaz-tenean, gainera, tortilla txapel-ketaren ordua ere izango da.

29an, 14:00etan batuko dira Herriko tabernan; izena tabernan bertan eman behar da, 29 eurotan

Sariak bazkarian eman-go dituzte. 29an, 14:00etan ba-tuko dira Herriko tabernan; izena tabernan bertan eman behar da, 29 eurotan. Bazkalos-tean ere, bazkide nagusienak omenduko dituzte. Aurretik, 12:00etan, hildakoen aldeko meza egongo da.

Abdominalak lantzeko hipopresibo saioak urrian

IZURTZA J.Derteano

Muskulu abdominalak lan-tzeko hipopresibo saioak an-tolatuko ditu udalak urrian zehar. Urriaren 15, 22 eta 29ko zapatuetan ordu eta erdiko hi-ru saio izango dira, 11:30etik 12:30era. Monitore bateko tal-

Izen-ematea irailaren 27ra arte egin daiteke udaletxean; klaseak urriaren 15, 22 eta 29an dira

dean 12 lagunentzako tokia da-go. Taldea herritarrekin osa-tzen ez bada, herritik kanpo-koei ere aukera irekiko diete. Izen-ematea udaletxean egin daiteke, irailaren 27ra arte.

Metodo hipopresiboa pos-tura eta mugimendu jakin ba-tzuekin abdominalak kontrak-zio bidez lantzean datza.

Mantenu gimnasia

Urrian mantenu gimnasia klaseak ere abiatuko dituzte. Izen-ematea udaletxean egin daiteke, irailaren 27ra arte. In-teresdunei bankuko kontu ko-rronteko zenbakia eramateko gogoratu diete. Ordainketak hi-ru hilerik behin egingo dituzte.

Legebiltzarrerako hauteskunde eguna izango da domekan

Eusko Legebiltzarkideak eta Lehendakaria aukeratzeko ordua heldu da

DURANGALDEA M.O.

Datozen lau urteetarako lege-biltzarkide eta Lehendakaria aukeratzeko ordua heldu da. Domekan izango da hautes-kunde eguna, eta herritarrek edukiko dute berba botoen bidez. Hamalau alderdiren ar-tean aukeratu beharko dute, 09:00etatik 20:00etara artean.

Bizkaian 1.343 mahai egon-go dira botoa emateko, eta ai-pagarria da 30.000 lagunek bai-

no gehiagok posta bidez bozka-tzea eskatu dutela. 20:00etan, kutxak ixtean, kontaketa ha-siko da.

Hamalau alderdiren artean aukeratu beharko dute, 09:00etatik 20:00etara bitartean

Azken txanpan

Hauteskunde kanpaina azken txanpan sartuta dago. Bihar hausnarketa eguna izango da, eta beraz, alderdiak azken la-nak egiten dabilta. Batez ere, kalean informazioa banatzen ikusi ahal izan dira, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos adibi-dez, eta EAJ eta EH Bilduren kasuan, Durangon eta Zorno-tzan ekitaldiak egin dituzte, hurrenez hurren.



Herritarrek hamalau alderdiren artean aukeratu beharko dute.

HAUTESKUNDEAK

I-25

DURANGALDEA ASTEON

Amankomunazgotik euskara sustatzeko laguntzak

DURANGALDEA > Euskara sustatzeko diru-lagun-tzak argitaratu ditu Amankomunazgoak. Komertzio eta tabernentzat da laguntzetako bat, errotuluak eta webguneak euskaratzeko. Gastuaren %50 ordaindu-ko da (500 euro, gehienez), eta elebitan ipiniz gero, %25 (euskara lehenetsi beharko da). Urriaren 28an amaituko da eskaerak egiteko epea. Bigarren lagun-tza irabazi asmo bako elkar-teentzat da. Urriaren 6a izango da laguntza eskatzeko azken eguna.

Udaltzainen oposaketarako inskripzioa hasi dute

ELORRIO > Udaltzain biren lanpostuak betetzeko opo-saketa martxan du udalak. Urriaren 10era bitartean eman ahalko dute izena interesdunek. Hurrengo betebeharrak daude: 18 urte betetik izatea, bigarren hezkuntzan graduatua izatea, eskola-graduatu izate-a, lehen mailako lanbide heziketako titulua edo parekoa izatea, gizonetzkoetan gutxieneko garaiera 1,65 zentimetrokoa izatea eta emakumezkoetan 1,60 zentimetrokoa izatea.

Datorren eguenean hasiko dira Dudeako jaiak

ZORNOTZA > Ate joka daude Dudeako San Migel jaiak. Datorren eguenean hasiko dira, San Migel egunez, 12:00etako kanpai hots eta txapliguekin. Urriaren 2ra arte, denetariko txapelketak, otorduak eta erromeriak eskainiko dituzte.

Aipatzekoa da zapatuan Mozorro Eguna ospatu-ko dutela. Afari herrikoia egingo dute Kanbio jate-txean, eta ostean, erromeria. Atsedendaldian, mozo-rrorik onenaren saria emango dute.

IRITZIA

ZAD

Zone A Défendre. Hori da ZAD. Babestu Beharreko Gunea. Nantes, edo britainiarrek deitzen duten moduan, Naoned hiriarren ondoan badago azken sei urte hauetan borrokan konbergentzia eraginkor bat, heldu berrien eta biztanleen politizazioa, auto-formakuntza eta bizimolde kolektiboen eraikuntza gauzatzen dituen eremu askea: Notre-Dame-des-Landes. Baina, zer dela eta horrelako eremu aske bat? 1972tik nazioarteko aireportua egin nahi dute lur horietan, eta orduztik milaka lagun daude proiektu horren aurkako okupazio iraunkorra aurrera eramaten, bertako laborariek egindako deial-diari jarraikiz. Baina nor dago proiektu txikitzaile horren atzean? Vinci enpresa. Enpresa horrek 200 hektarea apurtu nahi ditu, tar-tean hezegune garrantzitsu bat. ZADen, besteak beste, ikusten da posible dela kapitalismoaren xedeei ezetz esan eta burujabetasuna gaurdanik egitea. Guda-zelai sutua bilakatu da azken hamarka-

dan, baina aireportu baten kontrako borroka baino askoz gehiago da: kapitalismotik kanpoko bizitza eredu baten hazia da, elkartasu-na eta auto-kudeaketan oinarritua. Barne ika-mikak ez dira falta, baina gaur hara hurbiltzen denak sinpleki suma ditzake bertako animoak: jardun, elkar lagundu, errotu, epe luzera jo.

Indar erakustaldi horren aurrean, gobernuak ez daki zer egin. Epaileei dei egin die maiz, poliziak kopuru handian bidali, inkesta eta txosten interesatuak manatu, bertan “basa oihanaren legea” dagoela sinetsarazi, sasi-erreferenduma antolatu... alferrik. No-tre-Dame-des-Landes aurrera doa beti. Euskal Herrian militantzia molde berriak bilatzen gabiltzanontzat, Notre-Dame-des-Landes aberasgarri, baikor eta maitagarri zaigu. Nork esan zuen kapitalis-motik kanpo ezin zela bizi?

Xabier Gutiérrez. Zornotza

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta •
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Gotzone Barandika | Kimikaria eta kimika ez-organikoko irakaslea EHUn | Durango, 1966



“Gutxieneko kultura zientifikoagaz gure erabakiak hobeak izango dira”

Zientzia eta bertsolaritza uztartzen dituen ‘Jakinduriek mundue erreko dau’ ekitaldian arituko da

> BERBAZ Aitziber Basauri
Hiru bertsolari —M.Lujanbio, B.Gaztelumendi eta J.Uria— eta lau zientzialari —Gotzone Barandika kimikaria, Patxi Juaristi soziologoa, Onintze Salazar meteorologoa eta Felix Zubia medikua— batuko ditu ‘Jakinduriek mundue erreko dau’ jardunaldiak, bihar, 18:00etan, Bizkaia Aretoan (Bilbo). Zientzia eta bertsoa eskua emanda ariko dira.

‘Jakinduriek mundue erreko dau’. Horrela izango da? Ez dakit, ba! Jakinduria batzen dugu buruan, eta ez dakigu horregaz guztiagaz zer egin. Hori dena, nolabait, plazaratu beharra daukagu. Horrela ulertzen dut nik esamolde hori.

Zein da iaz lehenengoz eratu zen ekimen honen helburua? Kultura zientifikoa zabaltzea du helburu EHUKo Kultura Zientifikorako Katedrak, eta, horretarako, bestelako formatu berriak lantzen ari dira, ohiko hitzaldi aspergarri horietatik kanpo. Horietako bat da hau.

Zientzia aspergarria den iritzia oso zabalduta dago? Baietzkoan nago. Baliteke iza-

tea gure hizkuntza mailagaitik, eta, gure artean komunikatzeko edo harremanak izateko dugun ohituragatik, ez dugulako ahaleginik egiten gure eza guera jendearen artean zabaltzeko, hedatzeko. Egia da ere, horretarako foro gutxi daudela. Eskatzen digutenean egiten dugu, batzuok behintzat. Gure egunerokoan arruntak diren ekuazioak arrotzak dira publiko zabalarentzat, eta ez dakigu zenbaterainoko aspergarria izan daitekeen esandakoa. Beraz, gogoeta egin behar dugu horretaz guztiaz, eta ahalegin handia eskatzen du horrek. Erabat egokitu behar dugu diskurtsoa; pentsaera ere bai. Bestearen lekuan jartzen saiatu behar dugu, eta entretenigarria izan behar da. Ezin da beti tonu irmo hori erabili.

Hiru bertsolarik eta lau zientzialarik jardungo duzue. Bakoitzak bere arloa landuko du, eta gaiak guk proposatutakoak dira. Materiaren zientzian ari naiz ni, eta arlo horretan punta-puntakoa den material porotsuen ikerketa izango dut hizpide, ‘Kimikariak: nanoarkitektoak’ hitzaldian. Gaia oso modu sinplean azal-

“Zientziaren inguruan badago kultura bat, eta interesa landu egin daiteke”

“Homeopatia iruzur itzela da. Ez du inolako oinarri zientifikorik”

tzen saiatuko naiz, eta gizartearen ardura den energia eta ingurumenagaz lotuko dut. Hidrogenoa hartuko dut adibide, dirudienez etorkizuneko erregaia dena. Horren abantaila eta desabantailak azalduko ditut. Gure ikerketa desabantaila horiek ahalik eta gehien ekiditera dago bideratuta. Hamar minutuko saioak dira, arreta ez galtzeko denbora polita da.

Arrotza zaigu zientzia? Aurreiritzi asko ditugu? Ez dakit aurreiritziak diren,

baina, badago zientzialariaren halako irudi bat: Einsteina, zoratuta dagoen zientzialari horrena; bere munduan sartuta, arraroa, bitxia... Uste dut existitzen dela egia ez den mito hori. Pertsona arruntak gara zientzialariak. Horretan ere badago halako deskonexio puntu bat. Inguruan zientzia arloan dabilen inor ezagutu ezean, baliteke pentsatzea norberaren mundutik kanpo dauden pertsonak direla.

Hori aldatzeko lanean zabilatzate, ezta? Dibulгатiboagoa izan behar du zientziak? Horretan gabilta, bai. Kultura katedran badago kezka hori, eta horri aurre egiteko gero eta ekintza gehiago antolatzen dituzte, hainbat formatutan.

Horretarako, oraingoan, bertsolaritza duzue bidelagun. Jendea erakartzeko estrategia bat izan dela esango nuke. Modu bat da erakusteko zientziari buruz ere egin daitezkeela bertsoak, eguneroko bizitzaren gai bat gehiago izan daitekeela zientzia. Zergaitik ez? Hori da kultura zientifikoa. Zientziaren inguruan badago kultura bat eta, zientziarekiko interesa

landu egin daiteke. Ez dugu denok zientzialari izan behar, baina, gutxieneko kultura zientifikoagaz gure erabakiak hobeak izango dira bizitzaren arlorik gehienetan — elikadura, txertoak, arlo psikologikoan...—. Bizitzaren arlo guztietan dago zientzia, gura badugu. Zientziak ez dizu zer erabaki esaten, baina, erabaki hobeak eta demokratikoagoak hartzen dira ikuspuntu zientifikotik.

Komunikazioa ezinbesteko tresna da horretarako?

Nahitaezkoa, bai. Horrelako ekitaldiek jendea erakartzen dute, eta zientzialarien desmitifikazioan lagungarriak dira. Gainera, bakoitzak bere arloan diskurtso polita egitea lortuz gero, nire kasuan, punta-puntako ikerketaren nondik-norakoak transmititzea lortuz gero, publiko hori hurrengo batean ere etortzea lortu genezake.

Homeopatia, iriologia... zer iritzi duzu honen inguruan?

Ezin ditugu denak zaku berean sartu, ez dira konparagarriak, eta dena da errespetagarria. Hala ere, homeopatia iruzur itzela da. Ez du inolako oinarri zientifikorik. Plazebo eraginari lotuta egoten da homeopatiaren eragina, medikuntza tradizionalak ere onartzen du hori: tratamendu batean konfiantza edo borondate osoa baduzu, funtzionatuko du. Hala ere, eragin terapeutikoa ez dago produktu homeopatikoetan. Nonbait egotekotan, norberarengan dago. Orain badago halako beste korrante bat ere, naturala den guztia ona dela eta bestea txarra dela diona. Kimi-fobia gero eta handiagoa da.

Kimikari lez zer duzu esateko?

Zientziak ezaguera jartzen du mahai gaineen. Hortik abiatuta, gauza onak egin daitezke, edo txarrak. Bizi iraupena asko luzatu da zientziari esker; gure bizi-kalitatea hobetzeko dago zientzia.

Mito zientifikoa existituko dira, ezta?

Historikoki mito zientifiko asko jausi dira. Hori da zientziaren puntu sendoenetariko bat: auto-zuzenketa. Zientziaren parte bat da. Teorietan du oinarria zientziak, baina, teoria horietako baten kontra zerbaite gertatuz gero, dena hankazgora jarri daiteke, eta hori ere bada zientziaren parte bat; oker ibili garelako esatea.

Unai Ormaetxea (Zornotza, 1974) | ‘Bille’ liburua aurkeztu du |

“Ziklo hau amaitutzat emateko modua dela pentsatuta argitaratu du hirugarren liburua”

Asteon aurkeztu du Ormaetxeak ‘Bille’ liburua, eta bertako testuekin emanaldi bat prestatzen dihardu

> LITERATURA Itsaso Esteban
‘Bille’, zure hirugarren liburua, aurkeztu zenuen eguaztenean, Zornotzan.

Aurretik bi liburu kaleratu nituen, eta jende askok atera nituela ere ez daki. *Bille* eguneroko moduko bat da, urtaro bakoitzeko giro eta kutsu jakin bateko testuak biltzen dituena, eta horregatik egin nuen aurkezpena irailaren 21ean.

Aurreko bi lanen artean lau urte igaro ziren, eta zortzi hirugarrena kaleratu duzun arte. Hurrengo hamasei urte barru! (barrez). Egunerokoaren ariketa eginda neukan lehenago ere, baina duela bi urte arte ez zait hori dena ordenatzeko gogo sortu. Ziklo hau amaitutzat emateko modua dela pentsatuta argitaratu dut liburua.

Zelan egin zenuen aurreko liburuen zabalkundea?

Autoprodukzioa izan dira, eta Zornotzako Erroteta argitaletxean inprimatu ditut. Erroteta argitaletxeko Joseba Berriotxoak eskura ipini izan dizkit baliabide guztiak, eta berari esker kaleratu ahal izan ditut lanak. Autoprodukzioak oso gauza erromantikoa ematen du, bai-



na liburuen zabalkundea zaila izaten da argitaletxeek dauzkaten sareetatik kanpo.

Saiatu izan zara inoiz argitaletxeekin harremana egiten?

Lehenengoagaz egin nuen saiakera bat, baina neure barrua husteko ariketaren ondorioa dira lanok, eta hori ez da

formato jakin baten barruan sartzen. Argitaletxeek lanak etiketatu gura dituzte, eta nireak ez dira ez etiketa batean ez bestean sartzen.

‘Afalosteko kafeak’ liburuaren tematikak ez luke gazte literatura lekuri edukiko?

Izan zitekeen horrelako sail

baten parte, bai. Bost perfil desberdin sortu nituen liburu-rako, denak neugandik eratorriak, eta hamaika gautan, bakoitzean gai baten inguruan solasean ipini nituen. Esaldi lapidario eta metaforiko asko dago liburu horretan, eta izan daiteke teatro kutsua ere ematea horrek testuari.

Duela 12 urte idatzi zenuen. Bai. Gaurtik ikusita huts asko izango ditu seguruenik lan horrek, baina hori da ni duela hamabi urte nintzena. Ez nuke ezer kenduko ez ipiniko. Liburu horretakoa da orduan nintzenaren argazkia.

Zure blogetik jaitsi daitezke zure lehen liburu biak.

Bai, *Bille* argitaratu orduko igo nituen. Eskuragarri ipini nahi izan nituen irakurtzeko interesa duenarentzat.

Blog horretatik sortutakoa da ‘Bille’ liburua, ezta?

Bai, blogean eguneroko moduko bat egiten ibili nintzen; batean olerki bat, bestean bideo bat igotzen nuen... egunerokoz zerbait. Hori dena ordenatzeko modua izan da *Bille* argitaratzea, blogean egindakoa liburu euskarrira ekartzea.

‘Mario haritik tiraka’ bezala, gogoetaz beteta dago ‘Bille’?

Esentzian hori da. Trilogia baten moduan hartzen ditut nire argitalpenak. Nire barruak husteko modua izan dira hirurak, landu gura izan ditudan gaiez berba egiteko modua.

Oso adierazpide desberdinak uztartzen dituzu liburuetan: ipuinak, olerkiak...

Bai, izan ere, nire burua ez dut idazletzat. Izatekotan, sortzailea naiz, idatzi zein doinuak sortzen dituena.

‘Mario, haritik tiraka’ bezala, ikuskizuna ere izango da ‘Bille’

‘Inun’ musikari zornotzarrak lagunduta eskainiko du emanaldia



Zornotzako Zelaieta zentroan aurkeztu zuen, eguaztenean, ‘Bille’ liburu berria Ormaetxeak.

Mikel Inunziaga *Inun* Zornotzako musikariak bere ahotsagaz eta gitarragaz lagunduta eskainiko ditu Unai Ormaetxeak *Bille* liburuan oinarrituriko emanaldiak. Bere hirugarren liburuko testuak errezitatuko ditu Ormaetxeak, eta liburuko bertso-sorta batzuk kantatuko ditu *Inun*-egaz.

“Sinplea, gordina, izango da ikuskizuna”, aurreratu du Ormaetxeak, “formatu txikiko ordubeteko emanaldia”. *Bille* liburuan islatutako urtaro bakoitzeko lau testu aukeratuko dituzte emanaldirako, eta urtaro bakoitza *Inunen Berreginez* diskoko kanta batek itxiko du.

Ormaetxeak aurreratu du, Durangoko Azokako Ahotsean aurkeztu gura dutela ikuskizuna. Kontatu du, *Mario haritik tiraka* disko-liburua aurkezteko prestatu zuten ikuskizuna gehiago zabaldu ez

izanaren pena duela, eta *Bille*-gaz saiatu gura duela. Exkixu eta Ken 7 taldeen kontzertuetan bertsotan aritu izan da urteetan Ormaetxea, eta bere liburukoa oholztatik eskaini gura du orain.

Marioren emanaldia

Aitor Rubio musikariak lagundu zion *Mario haritik tiraka* liburua zuzeneko ikuskizun bihurtzeko kantak moldatzen, eta gitarrak, saxofoiak, irudiek eta hitzek osaturiko ikuskizuna prestatu zuten. “Liburua beste begi batez azaldu gura nuen”, kontatu du Ormaetxeak. Zornotzako Zelaieta zentroan egin genuen *Mario haritik tiraka* ikuskizunaren “zero emanaldia”, eta emaitzagaz oso pozik geratu ziren. Baina ez zuten horren ostean beste emanaldi bat ere emateko aukerarik izan.

Durangon joko du, bihar, Benantzi Bilbao organista mundakarrak

Arandoño elkarteak gonbidatu du Bilbao, eta San Frantziskon arituko da



Instrumentuaren inguruko azalpenak ere tartekatuko ditu Bilbaok.

MUSIKA I.E.

Durangoko Arandoño kultur elkarteak gonbidatuta, organo kontzertua eskaintzera etorriko da Benantzi Bilbao Durangora. Bihar, 20:15ean, San Frantzisko monasterioan hasiko den emanaldian, instrumentu horren funtzionamenduaren inguruko azalpenak eta organorako zazpi pieza eskainiko ditu Bilbaok.

Xabier Arana Arandoño elkarteak kideak asteon azaldu duenez, Bilbaorenaz gainera, beste hiru organo kontzertu izango dira hemendik eta urte amaierara arte, Durangon. Andra Marin izango dira hiru kontzertu horiek, azken hilabeteetan berrizten jardun diren organoan. Hain zuzen ere, berrizte lan horien osteko lehenengo kontzertua izango da azaroaren 4rako antolatu dutena.

Durangon hainbat aldiz aritu den 90 urteko Montserrat Torrent organista katalanak joko du azaroaren 4an, 20:30ean. Emanaldi horren aurretik (19:00etan), Andra Mariko organoa berrizten ibili den enpresako ordezkariak berrizte lanen inguruko azalpenak emango ditu. Aranak aurreratu duenez, 76.000 euroko inbertsioa egin dute 1942. urteko organo alemaniar hori berrizteko.

Abendurako bi hitzordu

Abenduan izango dira beste bi kontzertuak. Silboberri txistu elkarteak antolatu duen organo eta txistu kontzertua izango da abenduaren 3an, 20:00etan; eta organo eta orkestra kontzertua abenduaren 17an. Bilboko Orkestra Sinfonikoa eta Aarón Rivas organista gonbidatuko dituzte azken hitzordu horretara, Aranaren berbetan, “handia eta antolatze zaila, baina benetan interesgarria” dena. Arandoño elkarteak eta Durangoko Kontserbatorioak elkarlanean antolatu dute Bilboko Orkestraren eta Rivasen emanaldia.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



Polisa, banakako kultura?

Polisa. Antzinako Grezian hala esaten zioten hiri-estatuen asmakizunari. Akropoliak, agorak eta etxebizitzek osatzen zuten: leku publiko eta pribatuak. Politika. Polisa erakunde-lurralde horiek gobernatzeko era ziren eta dira. Lagun librean elkarbizitzak eragiten zituen arazoak konpontzeko era zen. Eta da? Justizian oinarritu behar zuen politikak, Platonek *Errepublikan* azaltzen duenez. Horrexegatik zen moralaren atal.

Nahi nuke egunotan buzoietan jaso ditugun koloreetako papertxoetan horren guztiaren usainik hartu banu. Baina inkestek esaten omen dute herri-tarren kezka nagusia ekonomia dela. Eta, ondorioz, papertxoak ekonomiaz barra-barra. Esaiezu horiei, Platon, justizian eta ongiaren ezagutzan formatuak izan behar duela Lehendakari.

Errepublika liburuan jasotzen da hiri-estatua antolatu eta kudeatzeko sistema ideala, Res Publica-ri buruzkoa delako. Zelan norbera justiziaz gidatu akropolian, agoran eta etxean? Pertsonak lotzen dituen eta estatua osatzen duen eremu hori justiziaz gidatzeko arauak dira/ziren politika. Berriz diot: ongiari eta justiziarri ematen ziztaion nagusitasuna. Koloreko papertxoak, ordea, banakakoari zuzenduak iruditu zaizkit. Horregatik ez dago kulturari aipurik. Publikoa dena denona da eta denon artean eraiki behar dugu, denontzako ona eta justua edo denontzako txarra eta injustua izango delako. Hori barneratu arte inoren kontu utziko ditugu umeen hezkuntza, zerbitzu publikoetarako diruen inbertitzea, espazio publikoen kudeaketa...

Aberastera edo izen on bila doazenen erruak geure kolkorekin partekatu ostean, berrar dezagun polisa hobetzeko konpromiso etikoa.

‘Bizi’ disko berria aurkeztu du ‘Etxe’ berriztarrak

Berriztarraren bosgarren diskoa da ‘Bizi’

MUSIKA I.E.

Atzo, Bilboko Campos Eliseos antzokian aurkeztu zuen Iñaki Etxezarraga *Etxek* bere disko berria. Berriztarraren bosgarren diskoa da *Bizi*. Kutsu baikorreko letrak dituzten hamar kanta biltzen ditu diskoak, eta bere gitarra akustikoagaz eta Iban Gurrutxaga gitarristak lagunduta aurkeztuko ditu *Etxek*.

Aurrerapen gisa, *Bizitzaren musika* kanta aurkeztu zuen *Etxek*, irailaren 1ean, besteak beste, Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabelen kolaborazioagaz grabatu duen kanta.

Urriaren 1ean, Berrizen hasiko du *Etxek* disko berriaren

aurkezpen bira. Mikel Deunaren ermitan joko du. Bere herriko kontzertuaren ostean, urrian, Bilbon, Donostian, eta Amurion eskainiko ditu kontzertuak, azaroaren 4an Durangoko Plateruenean, eta 18an Tolosako Bonberenean.

Nabari taldean ibili eta gero, 2004an hasi zuen Iñaki Etxezarraga *Etxek* bere bakarkako ibilbidea, eta Berrizko Gazte-teen antolatzen zuten Aldapa maketa lehiaketa irabazi zuen urte horretan. Maketa lehiaketako sariagaz grabatu zuen bere lehenengo diskoa. Azkena 2011n kaleratu zuen, *Haize berri bat* izeneko akustikoa.

Argazkilaritza eta sormen tailerrak, Zornotzan

Urriaren 3an hasiko dituzte Zelaietako ikastaroak

TAILERRAK I.E.

Urtero eskaintzen dituztenen osagarri, ikastaro berri bi ipiniko dituzte, aurtan, Zornotzako Zelaieta zentroan martxan. Argazkilaritzari buruzkoa izango da bata —Photowalk izeneko—, eta sormena landuko dute bestean. Txelu Angoitia argazkilari durangarraren eskutik, argazkiak ateratzera joateko txangoak egitea da Photowalk deritzon ekimen horren proposamena. Argazkiak egingo dituzten lekura elkarrekin joatea, eta zaletasuna partekatzea da proposamena. Urriko eta azaroko bost zapatu goizean egingo dituzte irteerak: Zor-

notzan ibiliko dira lehenengo egunean, eta Uribeakostara, Urkiolara edo Bilbora ere joango dira argazkiak egitera.

Krea & Rekrea tailerrean, bestalde, parte hartzen dutenen sormena indartzea da helburua. Ideiak sortu eta konponbideak bilatzeko ahalmena landuko dute tailer horretan.

Berriak diren ikastaro bi horiek bezala, urriaren 3an hasiko dituzte Zornotzako Zelaieta zentroan eskainiko dituzten gainontzeko tailerrak ere. Sabel-dantza, saloi-dantzak, zur-langintza, puntua, yoga edota sukaldaritza lantzeko aukera ere eskainiko dute.

Oskara

Kukai Dantza Taldea

Urriaren 1ean, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GINEA

PLATERUENA

Durango Kafe Antzokia www.plateruena.eus

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK	URRIAK 1 22:30ean DAVID GUAPO BAKARRIZKETA	2016 Basoa <i>El bosque</i> URRIAK 20 00:00etan BEGIRA PHOTO 2016 "BASOA" ERAKUSKETA	URRIAK 23 18:00etan AIKO ERROMERIA DANTZA
---	--	---	---

JAI AK! IURRETA

2016ko IRAILA



*Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*



Iurreta
Eleizateko Udala

IURRETAKO JAIEN EGITARAUA

Irailak 23, barikua

Argazki Rallya on line.
GAIA: Iurretako Jaiak
Lanak aurkezteko epea:
Irailaren 30era arte.
Lanak aurkezteko helbidea:
"kultur-etxea@iurreta.eus"
Parte-hartzaile bakoitzak 2 argazki
aurkeztu ditzake.
Saria: 50€koa izango da.
Sari banaketa: urriaren 2an.

18:00 Pirritx, Porrotx eta
Marimotots. "Amalur" ikuskizuna
Olaburu frontoian.

19:00 "Machomaris" antzerkia,
Ziprztintzen taldearen eskutik
(Gaztelaniaz).

19:30 WINGTSUN (defentsa
pertsonala) Askondon.

22:00 Kontzertua herrigunean.

Irailak 24, zapatua

8:30 Iurretako VII. Mendi Martxa.
Bi ibilbide:
- Laburra (umeentzat) 14km eta
+ 655m-ko desnibel positiboa.
- Luzea 23,3km eta + 1350m-ko
desnibel positiboa.
Izen-emateak www.kirolprobak.com
web orrian irailaren 1etik irailaren
22ko 24:00ak arte, 8€. Egunean
bertan 7:30etik aurrera 10€
Informazio gehiago Tel: 626740969,
E-mail: zaldai@hotmail.com,
www.zaldaimenditaldea.org

14:30 Marmitako lehiaketa kaskoan.
Aurkezpena.

17:00 Ginkana.

17:30 Maiztegiko umeen dantzak
Amilburun.

18:00 Fulbito Txapelketaren Finala
Maiztegi Herri Eskolan.

18:00 Asto probak.

19:00 Elektrotxaranga.

20:00 TIO TERONEN SEMEAK
dantza ikuskizuna plazan.

20:30 Umeentzako erromeria
Askondon "Disco Txiki".

22:00 Helduentzako erromeria
Askondon "Disco Erromeria".

22:30 Folk Kontzertua plazan
JOSEBA TAPIA.

Irailak 25, domeka

09:00 XXIX. Ahari lurreta martxa
zikloturista.

12:00-14:00 Umeen parkea,
puzgarriak. (Euria eginez gero,
Maiztegiko frontoian)

12:30 Asto probak. Gonbitez
1.- 340€ eta Moinbe eta Iriarte
Burdin lanak emandako manta.
2.- 310€ eta "Fontaneria Urtiaga" k
emandako trofeoa.
3.- 280€ eta "Zutoia ile-
apaindegia" k emandako trofeoa.
4.- 255€ eta "Arroiabe Arandegia" k
emandako trofeoa.
5.- 240€.
6.- 220€ .
7.- 200€.

12:30 Paella txapelketa. (Parte-
hartzaile bakoitzak bere osagarriak
eta tresneria ekarri behar ditu)

14:30 Aurkezpena.

Sariak:
1.- Otzara.
2.- Bi botila ardo.
3.- Botila bat ardo.

16:00-19:00 Umeen parkea,
puzgarriak. (Euria eginez gero,
Maiztegiko frontoian).

17:00 Pilota partiduak. Berasaluzeri
omenaldia (Olaburu Pilota Elkartea)
- ARTOLA / IBAI ZABALA
- PABLO BERSALUZE / LARUNBE
Sarrerak: goizez Ibarretxe Kultul
Etxean, 8:30-13:00.
Arratsaldez frontoian, 16:00-19:00.

19:30 Magia familian plazan.

21:00 Deabru Beltzak plazan.

Irailak 26, astelehena

19:00 Nesken Gomazko Paleta
Zirkuitua, "MPB" Saria
PRADERA-VILLANUEVA /
ARISTORENA-I. AGIRRE.

Irailak 27, martitzena

18:00 Bingo-tonbola Askondon,
jarraian txokolatada.

Irailak 28, eguaztena

SAN MIGEL BEZPERA

12:00 Montoitik txapligoak;
ondoren, kalejira dultzaineroek
alaiturik.

12:05 kontzentrazioa eta brindisa
montoian.

12:15 Umeendako ikuskizuna
Amilburun "Txan Magoa". Euria
eginez gero Goiuria kulturgunean

14:00 Herriko Nagusien bazkaria,
jarraian erromeria Uribesalgo
Soinujolearekin Askondon. Ondoren
dantza lehiaketa (pasodoblea,
tangoa...) eta patata dantza. Sari
banaketa.

14:30 Gazte bazkaria plazan.
Ondoren, tribial jokoak.

18:00 Ohiturazko Doniel Atxa
jasotzea, jarraian dantzarien azken
entsegua.

22:00 Erromeria ZESUMA
taldearekin.

Irailak 29, eguena

SAN MIGEL EGUNA

10:30 Dantzari eta agintarien
kalejira Montoitik Plazara.

11:00 Meza nagusia. Ondoren,
Dantzari Dantza eta Gorulari dantza.

12:30 Igel txapelketa.

17:00 Umeentzako ikuskizuna
"BEGIRA ZIRKUA HODEI ARTEAN"
plazan.

19:00 Dantzari Dantza eta neskek
egindako Soka dantza. Ondoren,
erromeria EZTEN GIRO taldearekin.

Irailak 30, barikua

11:00 Graffiti erakusketa eta Tailerra
Dantzari kalean.

16:30-18:30 Umeentzako tailerrak
Askondon.

1. Tailerra: aurpegi-margo tailerra,
eta mural erraldoia
2. Tailerra: eskumuturrekoak eta
abalorioak
3. Tailerra: zumba tailerra umeentzat
4. Tailerra: makillatu itsuan
5. Tailerra: zaku lasterketa

18:00 Tortilla txapelketa kaskoan.
(20:00etan aurkezpena).

19:00 Hilan aldeko meza.

19:30 Sakatu Elektrotxaranga.

19:30 Kontzentrazioa Askondon.

22:00 "Danza Oriental, tribial eta
Bollywood" ikuskizuna Askondon.

22:00 Kontzertua: LOS ZOPILOTES
TXIRRIAOS eta
erromeria OXABI taldearekin.

Urriak 1, zapatua

MOZORRO EGUNA: MUSIKA

10:00 "I Goiuria Igoera" lasterketa.
Irteera: Askondo kalean.
Helmuga: Goiuriako aparkalekuan.

11:00 Bizikleta festa.

12:00 Poteoa.

14:30 Bazkari herrikoa Askondon.
Play-back lehiaketa. Ondoren,
Txapito Guzman eta Ibarako
langostiniek.

19:45 Dispersiorik ez! Hartu trenal
FLASHMOBA plazan.

20:00 Erromeria LUHARTZ
taldearekin.

22:00 Bertso saioa: Unai Iturriaga,
Jon Maia, Maialen Lujanbio,
Igor Elortza, Sustrai Colina eta
Alaia Martin. Gai-jartzailea: Josu
Goikoetxea.

24:00 Erromeria Luhartz
taldearekin.

02:00 The Rigodonians. Elegant
word wide music! (Dj katalanak)

Urriak 2, domeka

ERROSARIO EGUNA

10:00-14:00 XVII. Nekazaritza eta
Artisautza Azoka Andaparapen.

10:30 Dantzari eta agintarien
kalejira Montoitik Plazara.

11:00 Meza nagusia.
Ondoren, Dantzari Dantza eta
Gorulari dantza.

12:30 Herri kirolak plazan.

12:30 Gastronomía txapelketa,
Makailaua (parte-hartzaile bakoitzak
bere osagarriak eta tresneria ekarri
behar ditu).

14:30 Aurkezpena.
Sariak:

1.- Otzara.
2.- Bi botila ardo.
3.- Botila bat ardo.

18:30 Dantza saioa. Talde
gonbidatua: De Norte a Sur
flamenko taldea. Iurretako
dantzariak: Gorulari Dantza.
Dantzari Dantza.
Ondoren, jaietako errifen zozketa.

20:30 Herri afaria Arantzak eta
Pantxok alaiturik.

22:00 Jaien amaiera ohiturazko
bertsoak kantatuz.
Erromeriak gauerdia arte jarraituko
du.



Repara Tu Vehículo
Bestelako mekanika posible da

Ondo pasatu San Migel jaietan!

www.reparatuvhiculo.es

N-634 errep. Durango - Bilbao 82 km.
UEI-3 ind. 5 behe - 48215 Iurreta Tel/Fax: 946 817 914

PROMOZIOAK

**OLIOA+OLIO FILTROA EROSITA
15 MINUTU DOAN BOXEAN**

**AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSITA
FRENO GARBITZAILEA DOAN**

**OLIOA+OLIO ETA ERREGAI
FILTROA EROSITA
30 MINUTU DOAN BOXEAN**



**AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEAK
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!**

aitte san migel jai batzordea

Jaiaz gozatzeko aukera zabala dute datozen egunetan iurretarek

Sanmigelen bezpera den asteburu honetan ere izango da zer ikusi eta zer egin, Jai Batzordeak deituta



Iazko Mozorro Egunean giro amerikarrak hartu zituen lurretako kale eta bazterrak.

> JAIK Aitziber Basauri
Igarri daiteke jai-giroa Iurretan.
Badatoz sanmigelak. Horren
bezpera dira datozen eguneta-
rako antolatutako ekitaldiak.
Gaur Pirritx eta Porrotx izan-
go dira, Iurretan; baita Zipriz-
tintzen taldeak taularatutako
Machomaris obra ere. Dome-
kan, berriz, Deabru Beltzak-en
ikusbizunak argituko du gaua.
Musika, kirola eta erromeria

giroa dituzte egunotan Iurretan; baita gastronomia lehiaketak eta umeentzako parkea ere.

Hala ere, eguaztenean elkartuko dira iurretarrak Montoian, jaiei merezitako ongietorria emateko. Ordua ipinita dute: 12:00etan. Ohiturazko Doniel Atxa igotzeko, berriz, arratsaldean batuko dira Aita San Migel plazan batuko dira. Tartean, Txan Magoaren ikuskizuna,

herriko nagusien bazkaria eta Gazte Asanbladak antolatutako gazte bazkaria ere izango dira. Gau giroa, berriz, Zesuma plaza taldearen ardura izango da.

Eguena dute egun handia iurretarek: San Migel eguna. Urtero moduan, Dantzari eta agintariek Montoitik Aita San Migel plazara egindako kalejiragaz hasiko dute eguna, eta, meza nagusia amaituta, Dantza-

ri Dantza eta Gorulari Dantza eskainiko dituzte herriko dantzariak. 19:00etan bigarren saioa izango dute: Dantzari Dantza eta neskek egindako Soka Dantza eskainiko dituzte oraingo honetan. Aurretik, *Begira zirkua hodei artean* umeentzako ikuskizuna izango da plazan.

Mozorro Egunerako prest

Horren ostetik, ekitaldiz josita-ko asteburua izango dute Iurretan. Tartean, Mozorro Eguna eta sanmigeletako kontzertua batzen ditu Jai Batzordeak osatutako jai egitarauak.

Los Zopilotes Txirriaos taldearen eskutik etorriko da aurtien jaietako kontzertua. Irailaren 30ean izango da, 22:00etan. Ondoren, erromeria izango da, Oxabi taldearen eskutik. Aurretik, umeentzako tailerrak, tortilla txapelketa, Sakatu elektrotxaranga eta *Danza Oriental*, *tribal* eta *Bollywood* ikuskizuna ere egongo dira.

Irudimena astindu eta egunak merezitako janzkera topatzeko denboraz daude oraindik iurretarrak. ‘Musika’. Horixe da urriaren 1erako antolatutako Mozorro Egunerako gaia, eta, azken urteetako ekitaldiei eutsi die Jai Batzordeak. Hala Bizikleta festa eta herri bazkaria

antolatu dituzte; eta, poteorako hitzordua egin dute. Bazkalosterako play-back erakustaldia prestatu dute, eta hori amaituta Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuen txanda izango da.

Luhartz taldeak ere ez du hutsik egingo egun horretan. Hala ere, aurtan, 20:00etan hasiko da erromeria. 22:00ak artean izango dute lehenengo ekinaldia; bigarrena, gauerditik aurrera. Tarte horretan, baina, izango da zertaz gozatu. Izan ere, jailetako klasikoa bihurtu den bertso jaialdia egongo da Olaburu frontoian. 02:00etan, berri, The Rogodonians dj katalanak ere arituko dira. Urriaren leian, Dispersiorik ez! Hartu trenea! flashmoba ere izango da.

‘Musika’. Horixe da, aurten, Mozorro Egunerako aukeratutako gaia

Nekazaritza azoka

Errosario Eguna dute urriaren 2a. XVII. Nekazaritza eta Artisautza Azokari egokitutako eguna. Horregaz batera, herri kirolen erakustaldia, dantzarien saioa eta gastronomia lehiaketa ere izango dira. Arratsaldean, berriz, De Norte a Sur flamenko taldeak eta Iurretako dantzariak eskainiko dute ikuskizuna.

Arantzak eta Pantxok alaitu-
tako herri afariagaz agurtuko
dituzte jaiak. Aurretik, ohitu-
razko bertsoak abestuko dituzte.

betixu

IGOR SOLAGUREN

betixu

IURRETA

ITURBURU kalea

N634 Bilbao

N634 Donostia

Tel.: 946 817 847 · Iturburu, 9 · IURRETA (Bizkaia)

 **ASIMAIR**
COMPRESORES

**SALMENTA ETA ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA**

Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16.
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415
asimair@asimair.com

DURANGO

Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak

Etorri ikustera!

Ondo pasa San Migel jaietan!

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak lurretan,
Elorrión eta Durangon

Herrigunetik Goiuriara hiru kilometroko lasterketa berria

Urriaren 1eko zapatuan, 10:00etan, irtengo da Askondo kaletik



Lehia sustatzea baino, parte-hartze zabala bermatzea izan dute helburu ibilbidea egiterakoan.

> LASTERKETA Joseba Derteano Aurtengo San Migel jaietako nobedadeen artean Goiuriarako I. Igoera dago. Hiru kilometroko lasterketa izango da, eta lehiara begira baino gehiago, jaietako giroari ekarpena egiteko helburuz sortu dute.

Jose Antonio Silva iurretarra da sustatzaileetako bat. Urte askoan gertuko hartuemanan izan du Migel Angel Munitxagaz eta Abadiñoko Sekulebedarra taldeagaz. Jaietan antzerako lasterketa bat eskaintzea interesgarria litzatekeela iritzita, udalagaz berba egin eta igoera antolatzeari ekin zioten Sekulebedarraren aterkia erabilita.

Hiru kilometroko igoera bat da lan horren emaitza. Urriaren 1eko zapatuan, 10:00etan, hasiko

da Askondon. Ez da ibilbide luzea, eta ez dute uste Goiuriarainoko aldapa ere inor ikaratzeko modukoa denik. Erakargarritasuna eta ahalik eta parte-hartzerik zabalena bilatuz diseinatu dute zirkuitua: “Jai giroan ondo

M.A. Munitxa:
“Jai giroan ondo pasatzeko ekimen bat da”

“Aurrera begirako asmoagaz antolatuko dugu, ez aurtengo bakarrik”

pasatzeko ekimen bat izan dadila gura dugu”, azaldu du Migel Angel Munitxak.

Izen-ematea egunean bertan 08:30etik aurrera izango da Askondon jarriko duten postuan. Sei euro izango da. Lasterketa-rako aterako duten kamiseta baina jasoko dute opari parte-hartzaile denek. Irabazleentzat, berriz, garaikurrak egongo dira.

Lasterketa finko bat bihurtzeko helburuagaz sortu dute. Probaren balorazio orokorrak (parte-hartzea, antolaketa lana...) erakutsiko du berriro antolatzea merezi duen ala ez, baina, hasiera batean, “aurrera begirako asmoagaz antolatu dugu, eta ez aurtengo aldirako bakarrik”.

Emakumeak protagonista izango dira herri kirolatan

Herri kirol saioa bertsotuko dute Ibarrek eta Bartrak

> HERRI KIROLAK J.D.

Azken hiru urteetan bila zebiltzan helburua beteko du aurtengo Iurretako HEKI Herri Kirol Taldeak: herri kirol erakustaldia emakumezko kirolariek bakarrik osatuko dute. Aurreko urteetan helburu berdinarekin bila ibili arren, gizonaekin osatu behar izan dituzte proba batzuk. Aurtengo den-denak emakumezkoak izatea lortuko dute lehenengoz. Urriaren 2an, 12:30an, hamar bat kirolari batuko dituzte San Migel plazan. Talde bitan banatuta lehiatuko dira. Getxo, Mutriku, Mendexako kirolariak batuko dira, besteak beste.

Bertsolari bi

Herri kirol saioa emakumezko bertsolari bik osatuko dute: Iratxe Ibarrek eta Oihana Bartrak. Proba batetik besterako tartean bertsotan jardungo dute.



Hainbat modalitatetan arituko dira.

Athletic, Eibar, Iurretako... kimu mailako futboleak

Zortzi taldek torneoak jokatuko dute urriaren 1ean

> JAIK J.D.

Iurretako futbol klubak kimu mailako lehenengo txapelketa antolatuko du urriaren 1ean. Zortzi talde batuko dira Larra-kozeleian futbol 7an aritzeko: Iurretako, Gertasport, Athletic, Eibar (talde bi), Lumo, Zaldibarko Zaldia eta Larrabetzuko Uritarra.

Torneoa 09:00etan hasiko da, eta 14:00 arte iraungo du. Ostean, sari banaketa egingo dute.

Iurretakok jokalaria gazteetan herrian dagoen oparotasuna aprobetxatu gura izan du txapelketa antolatzeko, klubeko Sagarnaga presidentearen esanetan: “Gazteei ilusioa egingo diela espero dugu”.

IK Iurretakopistegia
INPRENTA DIGITALA

Bidebarrieta, 1 behe (Korreos ondoan)
48215 IURRETA
Tel. 94 681 10 70
info@iurretakopi.com

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
IZARBET TIEN 21
Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldeko eta komuneko altzariak

Bixente Kapanaga, 3 - IURRETA izarbek@izarbek.com
Tel.: 946 812 280 - Faxe: 946 216 336

Garage SAN MIGUEL

TallerXXI



Dantzari auzunea, 8 Behea - 48215 IURRETA
Tel.: 946 811 479 - garagesanmiguel@gmail.com
www.garajesanmiguel.es

ARRIBIDE



Ondo pasa
sanmigeletan!

Tel.: 946 818 381

Ibilbide laburra nobedade aurtengo mendi martxan

14 kilometroko martxa labur bat egingo dute bihar, ohiko luzeaz gainera



Iaz jende ugari batu zen mendi martxan.

> **MENDIA** J.D. / M.O.

Aurtengoan nobedadeekin dator Zaldai Mendi taldeak antolatzen duen martxa. Beste urteetan ez bezala, aurtengoan mendizaleek bi ibilbide izango dituzte aukeran Iurretako VII. Mendi Martxan. Izan ere, ibilbide labur bat prestatu dute, egunerokoan mendian ez dabilzan herritarrei aukera bat emateko asmoz. Bihar, hilak 24, egingo da ibilaldia, makina bat mendizale batzen dituen.

Ibilbide laburrak 14 kilometro izango ditu, 655 metroko desnibel positiboagaz. Ibilbide luzeak, oster, 23.3 kilometro eta 1.350 metroko desnibel positiboa. Martxa laburra "zailtasun teknikorik bakoa" dela esan dute Zaldaiak, eta umeez ere egin ahalko dutela.

Ibilbide luzea egiten dutenak Mugarra magaletik eta Aramotz mendilerrotik pasatuko

dira. Handik, Artatzagane (996m) eta Leungane (1.006m) tontorretara igoko dira.

Irteera, 08:30ean

Ibilbide biek 8:30ean izango dute irteera, eta herriko plazan hasi eta amaituko dira. Aurretiaz izena emateko aukera egon da www.kirolprobak.com web orrian, baina bihar bertan ere egongo da aukera, 10 euroren truke. Bestalde, antolakuntza-koek jakinarazi dute 14 urtetik beherakoentzat doakoa izango dela inskripzioa.

Indarrak hartzeko

Mendi taldekoek kafea eta pastak prestatuko dituzte gosaltzeko, mendizaleek goizean indarrak hartzeko. Horrez gainera, jan eta edateko postuak ere ipiniko dituzte Inunganen eta Marmolen. Ibilaldia amaitzean, luntxa dastatu ahalko dute lagu-

nartean, eta dutxatzeko aukera ere edukiko dute, pilotalekuko instalazioetan.

Bihar bertan ere egongo da izena emateko aukera, 10 euroren truke

Ibilaldia amaitzean, luntxa dastatu ahalko dute lagunartean

108 kilometroko ibilbidea dakar Ahari Iurretak

Busturialdetik eta Lea Artibaitik pasatuko da

> **TXIRRINDULARITZA** M.O.

Iurretak Txirrindulari Elkar-teak antolatzen duen Ahari Iurretak ibilaldia jaietako hitzordu esanguratsuetako bat izan ohi da, zikloturisten egutegian gorri markatutakoa. Aurten 108 kilometroko ibilbidea dakar martxak, eta Busturialdea eta Lea Artibait igaroko ditu.

09:00etan hasiko da, domekan. Iurretan irten eta Garairantz joko dute lehenik, Goiuria auzotik pasatuta. Gero, Iurretara buelta, eta Muniketan zehar

Gernikaraino joango dira. Handik, Nabarniz, Ereño, Lekeitio, Oleta, Munitibar, Gontzega-raigana, Bolibar, Iruzubieta,

Iurretan irten eta Garairantz joko dute lehenik, Goiuriatik pasatuta

Trabakua eta Berriz igaroko dituzte. Handik Iurretara itzuliko dira berriro.

340 euroko saria astorik onenarentzako proban

Bihar eta etzi jokatuko da asto proba txapelketa

> **HERRI-KIROLAK** M.O.

Asto proben zirkuituko ohiko plazetako bat izaten da Iurretakoa, herriko kirolzale ugari batzen dituen, eta aurten ere ez da probarik faltako. Bihar eta etzi jokatuko da txapelketa, eta 340 euroko saria egongo da astorik onenarentzat.

Bihar, 18:00etan elkartuko dira Olaburuko probalekuan.

Gonbitez ekarriko dituzte astoak antolatzaileek. Domekan izango da saio erabakigarria, eta saio hori amaitzean eman- go dituzte sariak. Eguerdian hasiko da bigarren saio hori, 12:30ean.

Lehen zazpi sailkatuentzat egongo da errekonozimendua, 340 eurotik hasita 200 euro- raino.



**DESGUACES
PILASTRA**

AUTOAK DESEGITEKO LANTOKI BAIMENDUA

- Erabiltzen ez diren ibilgailuak deskontaminatzeko zentro baimendua EU2 / 097 / 04 gestorea.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJA EMATEA

☎ eta Faxe: 946 218 079

OSAGARRIEN SALMENTA

☎: 946 201 787

**GRUA
ZERBITZUA**

Fauste Auzoa, 18
(Zugastietara bidean)
48215 IURRETA

OKINDEGIA

ALBERDI



Mallabiena, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA



Azkonizaga

Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxe: 946 810 652
azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

LAGOI
S.L.

**ERAIKUNTZARAKO
MATERIALA**

BILTEGIA IURRETA
Arriandi auzoa, z/g
Tel.: 94 620 33 22
Faxe: 94 621 58 74
ERAKUSKETA ABADIÑO
Alienalde pol. Astolabeitia, 9
Tel.: 94 621 52 84
Faxe: 94 621 52 85
www.lagoi98.com

MICHELIN PIRELLI KONI

IURRETAUTO

**MEKANIKA-
KONPONKETA
ELEKTRONIKA
OROKORKI**

Maspe kalea, 18
48215 IURRETA
Tel.: 946 817 030
Fax: 946 202 668

iurretauto@euskalnet.net

UNDARRI BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa
Eski / Snow tailen konponketa



Bidebarrieta, 5 beheko IURRETA
Tel.: 946 817 808
www.undarribike.com

Iñaki Josu Mirena Irazabal Agirre | San Migel jaietako kartelaren egilea | Iurreta, 1961

“Kartel lehiaketa martxan jarri zenetik dihardut parte hartzen”

Iñaki Irazabal ‘Kiña’-k hirugarrenez irabazi du San Migel jaietako kartel lehiaketa



> KARTELA Jone Guenetxea Iñaki Irazabal ‘Kiña’-k hirugarrenez irabazi du bere herriko jaietako kartel lehiaketa. Iurretarrak inork baino hobeto isaltzen du Sanmigel jaien esentzia bere karteletan. Aurten Domingiloa da bere sormen lanaren protagonista. Herriko jaiak gertutik bizi ditu Irazabalek. Aurten ere, edozein ekitalditan bere kameragaz argazkiak ateratzen ikusiko dugu.

Zelan sortu da kartela egiteko ideia? Panpina horrek gauza arraro bat du. Antzina plastikozkoa zen. Aurpegia apurtu egin zitzaion, eta zakua jarri zioten. Begiak errotuladoreagaz margotu zizkieten, eta orain *muñeko diabolikoa* ematen du. Sinpatiko kabroia, esaten diot nik. Ezpatadantzari aurpegia duela esaten diet dantzari gazteei [barrezka]. Domingiloak badu bere historia. Sarrazenonen borroka-edo egon zen hemen. Hemengoek irabazi zuten, eta buruzagia jarri zuten hor goian, eta zinta-dantza dantzatu zuten.

“Doniel Atxa jasotzen duten momentua berezia da niretzat. Dantzariak ere oso gustuko ditut”

Nola atera diozu argazkia? Iazko jaietan atera nion argazkia. Hortik irten da kartela.

Kartel lehiaketa irabaztea espero zenuen?

Ez. Izan ere, kartel batek irabazteak ez du esan gura kartel hori hobea edo txarragoa denik. Jendeari gustatzen zaion kartelagaz asmatzea da. Interneten egiten diren lehiaketetan, berriz, koadrilarik handiena duenak irabazten du.

Noiztik diharduzu Iurretako kartel lehiaketan parte hartzen?

Kartel lehiaketa martxan jarri zenetik dihardut. Aurretik, jai batzordean nenbilenez, kartela egiten genuen, batek propo-

samenen bat izaten zuen eta diseinatu egiten genuen.

Beste lehiaketaren batean parte hartu duzu?

Durangon eta Elorrioren aurkeztu izan naiz.

Baina irabazi, Iurretan irabazten duzu.

Hiru bider, irabazi dut gainera. Lehenengo lehiaketa 1989an irabazi nuen. Aurrekua dantzatzeko, irudi figuratiboa zen karteleko protagonista. Margo bat sortu nuen. Orain urte bi, zinta-dantzako zinten argazki batez egin nuen kartelak irabazi zuen.

Argi dago dantzariak arrakastadutela Iurretan.

Durangon irabazi gura baduzu, zezena sartu behar duzu. Iruñean entzierroa, Bilbon Marijaia, Gasteizen Zeledon... Herri bakoitzak bere ezaugarria du.

Jaietako argazkilari ofiziala ei zara.

Argazkiak zaletasunagatik ateratzen ditut. Urtero 1.000 argazki inguru ateratzen ditut. Gero, balio ez dutenak ezabatu egiten ditut.

Zein da jaietako une politena?

Doniel Atxa jasotzen duten momentua berezia da niretzat. Dantzariak ikustea ere oso goko izaten dut.

Parques y Jardines Abadiano, S.A.

LOREZAINZA · KIROL ZELAIK · HIDROEREITIA · GOLF ZELAIK

Gaztañatza auzunea - IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 813 793 / 946 812 633 / 946 215 580
Faxa: 946 819 082 · parques@parquesjardines.euskalnet.net

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Mallabiena K21

M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrialdea, 6
48215 IURRETA
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051
mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com

URALDE
KLINIKA DENTAL

Begoña Zubimendi Goxencia

Uralde 1, Bajo
Esquina Bixente Kapanaga
48215, Iurreta, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea
(Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123
Faxa: 946 203 818
oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

SERAPIO CALVO
eskaiolazko dekorazioak

• SABAI ERREGISTRAGARRIAK •
• PLADUR SABAIK •
• APALAK •

Tailerra
Bidebarrieta, 7 behea · IURRETA · Tel.: 946 811 512
serapicalvo36@gmail.com

Herrigunea girotzeko egitaraua prestatu dute tabernariek

Zazpi tabernaren artean, jaietan herrigunea girotzeko egitaraua osatu dute

> JAIK Itsaso Esteban
Jai-giroa Aita San Migel plaza-
tik haratago, Iurretako herri-

gunean zabaltzeko helburuagaz
elkartu, eta egitarau bat pres-
tatu dute aurten, lehenengoz,

Iurretako tabernariek. Zazpi
tabernaren artean gaurko eta
biharko egitaraua prestatu dute,



Portugaleteko Guretzat fanfarrea kalejiran ibiliko da bihar iluntzean, herrigunea musikagaz girotzen.

“herrigunean ere jaiak direla nabari dadin”, azaldu du egitaraua prestatzen ibili den Gauargi tabernako Lorena Porrasek.

“Urte guztian ibiltzen gara herrian giroa sortu guran, eta irailean, herriko jaiak ailegatzaren direnean, herrigunean ez da jai-girorik egoten”. Aita San Migel plaza inguruan izaten dira, Porrasen berbetan, jaietako ekintzarik gehienak, eta urteetan eskatu dute jaietako ekintzak herrigunean ere egitea. Gabonetan kaleak girotzeko argiak ipintzen dituzten bezala, jaietan ere herrigunea apaintzea eskatzen diote udalari. “Tabernariok ipintzen ditugu taberna kanpoaldeetan apaingarriak, baina udalak gehiago lagundu beharko luke kalean jaiak ikusgai egiten”.

Gaur izango da tabernen egitarauak jasotzen duen lehenengo ekintza. Arte martzialetan jarduteko aukera izango dute, 19:00etan, Askondon. Gauean, Gauargi, The Ramon eta Dantzari tabernen artean muntatuko duten eszenatokian kontzertuak izango dira. Klown,

Rust&Locks eta Kohatu Durangaldeko taldeek joko dute, 22:00etatik aurrera.

Marmitako txapelketa egingo dute bihar eguerdian, eta iluntzean, Portugaleteko Guretzat fanfarria jardungo da giroa berotzen.

**Arte Martzialetan
jarduteko aukera
izango da gaur,
19:00etan**

**Marmitako
txapelketa egingo
dute bihar,
lehenengoz**

Tabernariek uste dute denentzat dela onuragarria jaietan herriguneko giroa indartzea. Azpimarratu dute zazpi taberna horietako arduradunek badutela gauzak egiteko eta elkarregaz jarduteko gogoia.

Joseba Tapia trikitilaria eta Besamotzak bere taldea arituko dira bihar

Folk kontzertua eskainiko dute Joseba Tapiak eta bere taldeak bihar, 22:30ean, Iurretako plazan

> MUSIKA I.E.
Iurretako plazan joko dute bihar, 22:30etik aurrera, Joseba Tapia trikitilariak eta bere taldekideek. Tapiaren kantutegiko aleak eskainiko dituzte folk kontzertu horretan.

Datorren asteburuan ere, kanturako, dantzarako eta ondo pasatzeko zuzeneko doinuak izango dira Iurretako jaietan. Los Zopilotes Txirriaos Iruñeko taldea arituko da, irailaren 30ean, 22:00etan. Kontzertu

horren ostean, Oxabi taldearen erromeria egongo da.

Kantuan amaituko dituzte Iurretako San Migel jaiak, urriaren 2an. Ohitura bilakatu den eran, Arantza eta Pantxo elorriarrek alaituriko afaria egingo dute, 20:30ean, eta jaien amaierako bertsoak kantatuko dituzte afalostean. Jaiak ahal beste luzatu gura dituenak gauerdia arte erromerian egoteko aukera izango du Iurretako San Migelen azken egunean.



Taldeak lagunduta etorriko da Tapia.

Gauargi Taberna
Te bereziak
Gozari berezia
Dantzari, 5 - Iurreta

La Bodeguilla
ERRAZIOAK
IBERIKOAK
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK
Tel.: 944 669 357
Dantzari auzunea, 6
IURRETA - Bizkaia

lurretako BATZOKIA
Eguneko menua
Enkargatutako afariak
Asteburuetako afariak
Bixente Kapanaga, 21
Tel.: 94 620 27 64

THE RAMON BAR
Dantzari auzunea, 4-5
IURRETA
Tel.: 946 570 112
www.theramonbar.com

**RENAULT**
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobeak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**

**RENAULT**
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

Txistuak Zornotzako herrigunea eta auzoak hartuko ditu zapatuan

“Txistua Zornotza osoan entzutea da helburua”, diote Txistulari Eguneako antolatzaileek

MUSIKA J.Derteano

Zapatuan Txistulari Eguna ospatuko dute Zornotzan. Bizkai-ko, Arabako eta Gipuzkoako zazpi taldek herrigunetik ez ezik, auzoetatik ere zabalduko dituzte txistu doinuak. Helburu horixe baitu biharko egunak: “Txistua

Txistulari Eguna 16. aldia egingo du aurten. Zornotza Udazken taldeagaz batera, Eibarko Usartza, Gasteizko Adurtza, Barakaldoko udal banda, Bermeoko Kankinkabara, Durangaldeko Jaizale eta Gernikako taldeak etorriko dira. Guztira, 40 bat txistulari batzea itxaroten dute. Aurten tronpetari bi ere gonbidatu dituzte, eskainiko duten musikari ukitu berezi bat gehitzeko.

17:00etatik 18:00etara txistu taldeak auzoetatik sakabana-tuta ibiliko dira: Ogenbarrena, Gane, Ixer, Zubibitarte, Andrandi... Ondoren, 18:30 inguruan talde guztiek elkarrekin jarraituko dute kalejiran (Luis Urren-goetxea, Euskal Herria plaza, Gernika Plaza...) tokian-tokian 10-15 minutuko kontzertuak

Zornotzako taldeaz gainera, Durango, Gasteiz, Barakaldo, Bermeo eta Gernikako taldeak ariko dira

Zornotza osoan entzun dadila gura dugu”, azaldu du Iban Ibarretxek, ekimena antolatzen duen Udazken txistu taldeko kideak.



Zazpi txistu taldek eta 40 bat txistularik hartuko dute parte. Udazken txistu taldea

eskainiz. Talde bakoitzak bere herriko abestiak ekarriko ditu, eta horixe da Txistulari Eguna eskaintzen duen beste bereizgarrietako bat: musikalki duen aberastasuna eta herrietako abestiak ezagutzeko aukera.

Eguna amaitzeko, Auzokoa jatetxean afalduko dute denek elkarrekin: “Gonbidatutako taldeek beti esaten digute oso ondo pasatu dutela, eta hurrengo

urtean ere gonbitzeko”, dio Iban Ibarretxek, eta hori ei da jaso dezaketen esker onik adierazgarriena.

Domekero kalejiran

Udazken txistulari taldea 2000. urtean sortu zuten ofizialki, eta urte hartan bertan antolatu zuten, lehenengoz, Txistulari Eguna. Harrezkero, ez du hutsik egin. Baina zornotzarrek, egun

honegatik barik, domekero herrigunetik eskaintzen duten kalejiragatik ezagutzen dute, batez ere. Urteko domeka denetan ateratzen dute txistua kalera: “Guk dakigula, ez dago antzerako zer-bait egiten duen beste talderik”, dio Ibarretxek.

Zornotzako auzoetako jaietan ere parte hartzen dute, eta urtean zehar beste hainbat ekimen antolatzen dituzte.

Estreinaldi bi hartuko ditu Zornotza Aretoak datorren hiruhilekoan

Asteon aurkeztu dute Zornotza Aretoko abendura arteko programazioa



‘Malmö’ obraren gaztelaniazko bertsioa estreinatuko dute, urrian, Zornotzan.

PROGRAMAZIOA I.E.

Datozen asteetan, Zornotza Aretoko arituko da Khea Ziater taldea *Malmö* antzezlan berriaren gaztelaniazko bertsioari azken ukituak ematen, eta urriaren 6an estreinatuko dute bertan. Emanaldi horregaz hasiko du Zornotza Aretoak kurtso berriko programazioa, eta asteon aurkeztu dute abendura arteko egitaraua. Khea Ziater taldearena ezezik, beste antzerki obra baten estreinaldia ere hartuko du Aretoak, hiruhileko honetan. Antzoki horretako konpainia

egoiliarak, Markeliñek, *Euria* izeneko obra estreinatuko du, azaroaren 25ean, Zornotza Aretoko. Hitzik bakoa da ikuskizuna, eta Markeliñeren ibilbidean dakarren berritasun nagusia dantzaren presentzia da. Doluari buruzko antzezlan da *Euria*, ume eta helduei zuzendurikoa. Iñaki Egiluz taldekideak azaldu duenez, “galerak sortzen dituen emozioen inguruan modu polit batean jardutea” izan dute antzerki taldekoek erronka.

Kulturaren askotariko adierazpideak biltzen ditu Zornotzako abendura arteko programazioak. Antzerkia ezezik, kontzertuak eta dantza ikuskizunak ere bai. Luisja Ugarte arduradunak azpimarratu duenez, “programazio orekatua” osatzea izan dute helburua.

Aurreko ikasturteetan beza-la, Kine Zineklubaren eskutik, zine emanaldi tematikoak izango dira, hilabetero, Zornotzan. Irailean, urrian, azaroan eta abenduan, hiruna film eskainiko dituzte. Andrés Espinosa Gogoratzu ekimenagaz bat eginda, mendia izango da iraileko zineklubaren gaia. Natura izango da urriko zineklubaren gaia, zinema sozialaren hiru ale eskainiko dituzte azaroan, eta musikari buruzko hiru dokumental izango dira ikusgai abenduan.

Martitzenetan, zinemari buruzko tailerra ere aukeran izango dute zinezaleek. Zinemaren inguruko gogoetak beste zinezale batzuekin partekatzeak aukera dira hitzordu horiek, eta kinezinekluba@gmail.com helbidean eman daiteke izena.

ALB ERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

INDARBERRITUZ ABIATU II / II



> PRAKAGORRI Gorka Aurre

Ikasturtean aurrera egin ahala ikasleei azalduko zaizkien eragozpen, arazo eta gainditu beharreko egoerei, larrienak izanik ere, egokitasunez aurre egin ahal izateko ezinbesteko faktoreetariko bat motibazioa maila jasoan mantentzeko gaitasuna izatea dela adierazten nuen aurreko artikuluan.

Egia esan ez da lan erraza gauzak begioker datozenean motibazioa maila jasoan eustea, horrelakoen aurrean ikasle gehienek emozio jarrera naturala gainbehera etorri, adorez ahuldu eta arazoak gaina hartu izanaren ondoren etsipenaren apatxetan erortzea izaten baita. Beraz, ikasleei egoerak muturroko datozkietan motibazioa gainbehera etorri ez dakien, teknika egokiak barneratu eta dagokionean aplikatzea besterik ez dago.

Motibazioa dugu edozein ikasketaren eraginkortasunaren zehaztapenean ezinbesteko garrantzia duen faktoreetako bat. Oro har, motibazioa ikas-zeregin zehatz jakina egitera bultzatu eta ekintza horretan etengabe jarraitzeko errentagarritasuna zehaztera daraman pertsona batek duen gizabanako-egoera da.

Ikuspegi horretatik, betebeharreri aurre egin edo gauzak egoki burutzeko ziorik eraginkorrena, zalantza izpirik gabe, zaletasuna dugu. Gehienetan, ondo dakigunez, ikasteko bultzada edo ikasten jarduteko borondatea, erakargarri diren motibazioen eta nazkagarri diren arteko aldeko saldoaren emaitza da.

Lehenengoen artean jakin-mina edo jakite-gogoia, perfekzionismoa, beharrian ekonomikoa, ikas-prozesua artezten

dutenenganako esanekotasunerrako joera, ezjakintasunagatik barregarri gelditzeko edo gaitzetsia izateko beldurra, denbora egokitasunez erabiltzeko komenientzia etab. aipa ditzakegu.

Bigarrenen artean, jolasean, oharkabetasunean edota ego-nean izateko joera, nagitasuna, ahaleginean porrot egiteko beldurra, ikasiaren baliagarritasunari buruzko zalantzak, beste jakintza edo teknika batzuk barneratzeko joera, akidura edo nekea, behar beste lorik egin eza, ikasketak bideratzen dituen arenganako ezinikusi nabarmena etab. bildu daitezke.

Motibazioa da, ikasleak duen gaitasun mailarekin, alde aurretik dituen oinarritzko eza-gutzeekin eta egokiak diren ikas-tekniken erabilera bikainarekin batera, ikasketetan lortutako arrakasta azaltzera datorren faktore nagusienetarikoa bat.

Gaitasun intelektual handia izanak ez du ezertarako balio ahalegin-ohiturarik ez bada. Beraz, ez da nahikoa inteligentzia handia izatea mahai aurrean eseri, ukondoak ezarri eta ikasketak eraginkorrerako metodologia egokiz ikasteari ekiten ez baldin bazaio. Ikas-metodologiak ezagutzea ez da nahikoa eta onuragarri izan daitezen, erabiltzen jakin behar dira.

Aurrekoan motibazioaren hiru teknika sustatzaile (helburuak ezarri, teknika aktiboak erabili eta ikas-ohiturak sortu) aztertu genituen. Ezarritako helburuak lortu ondoren, berriak zehaztu eta hurrengo urratsak ematen hasi aurretik, helburuak erdiestearren saria ezartzea neurri bikaina da.

Laugarren teknika, lortutako helburuak saritzean datza. Aurretiaz ezarri eta planifika-

“Ikasturtearen hasieran batik bat, ahalegin gehigarri, sendo eta berezia egin behar da”

“Motibazioa da ikasketetan lortutako arrakasta azaltzera datorren arrazoi nagusienetarikoa bat”

tutako helburuak lortu izana, sari txiki baten hartzekodun da. Ohikoa da ikasleek euren egin-beharrei heltzean ikasgaiaren bat bere osotasunean ikasteko orrialderen batzuen faltan, ikasketak bertan behera utzi eta euren atentzio osoa beste gauza batzuetara bideratzea, ikaste lana eten eta geroagorako utziz. Ohitura okerra. Ikasgaia bukatu arte lanean jarduten jarraitzea da bide egokia eta, behin bukatutakoan, sariaz disfrutatu.

Helburuak lortu izanagatik norbere buruari saria esleitzeak, jarduera saritua indartu egiten du eta gerora beste antzerako egoerarik azaltzean, alde aurretik ezarritako helburua lortu arte ikasten jarraitzeko kemen eta gogo handiagoa izaten da. Ohitura kontua.

Horrek ez du esan nahi lortutako helburu txiki orok saria jaso beharra duenik, kasu horietan, sari ugari izanak monotonia baitakar eta, ondorioz, motibaziorik eza nagusitzen da. Bestalde, sariak jasozko jarduera indargarria askoz eraginkorragoa izaten da aldizkakoa baldin bada.

Bosgarren, ikasturtearen hasieran batik bat, ahalegin gehigarri eta berezia egin behar da. Ikasturteko lehen urratsok, guztien artetik zailenak izaten dira; are gehiago mailaz igo edo eza-gutzen ez diren jakintzagai berriei aurre egin behar zaienean.

Ondorengo asteotan ahalegin gehigarria egitea egokitzen da, udaran izandako atsedenaldira luzeak eragindako nagikeria astindu eta aurrerantzean jasoko diren ezagutzak finkatzeko oinarriak egoki ezarritik. Ikastaroaren lehen asteotan, jakintzagai berriei dagozkien datu, azalpen eta kontzeptuak elementu isolatu gisa azalduko dira zailtasun maila gehigarriarekin ekarritik. PRAKAGORRIIn, ikastetxeetan lehen ebaluazioan jakintzagai bakoitzeko aztergai diren ikasgai guztiak, planifikazio egoki eta zorrotza ezarritik, urriaren erdirako landu, jorratu eta erabat ikasita izaten dira, abenduaren hasierarako bigarren ebaluazioarako diren ikasgaiak erabat barneratzera iritsiz. Hasierako ahalegin gehigarri eta berezia aipatzean, horretaz ari gara.

Seigarren, jakin-mina gartztea da motibazioaren beste zutabe bat. Gurasoak euren seme-alabez hitz egitean sarri aipatzen dituzte “ez da matematikarako jaioa”, eta antzeko esaldiak baina sinesmen horiek egia izatetik oso urruti daude, gaitasun intelektuala, guztiona, mugagabea baita. Inteligentzia, etengabe landu eta zuzentzen ez baldin badugu, gure gaitasunak hobetu eta garatzen ahalegin urri badagigu, ez dugu inoiz

benetan asetuko gaituen etekinik lortuko. Jakintzagaiekiko dugun interesa nolakoa, barneratzeko zailtasuna halakoa.

Jakintzagaiekiko balorazioa ikasle bakoitzak duen heziketa, nortasun, interesen eta sarritan ikasgelan jakintzagai bati buruz sortu eta zabalduko talde-irizpidearen arabera izaten da, baina, edozein kasutan, ikasleek “astun”, “ikasezin” edota “rollo” tzat jo daitezkeen ikasteko, motibazioaren alorrean, gauza onik egin daiteke. Ikasteen, bi ikuspegi izanez jardun daiteke: aipatutako zorigaitzako ikasgaiei atseka-bez aurre egin beharrez edo ikasgaiarekiko jakin-mina sustatu dezaketen interesguneak aurkitzen saiatuz ikasketa atseginagoa izatea lortu.

Azkena da zailtasun berezia azaltzen duten ikasgaien aurrean agertzeko den jarrera inteligentea. Ikasketetarako teknika aktiboak erabiltzean ikasgaia apurka apurka atsegingarriagotzat jotzen da, norbere jarrera fisikoa zeharo aldatu eta barne gogoia ere hobetzeaz gain ikasketetarako motibazio handiagoa lortuz.

Distrakzioa saihesteak osatzen du motibazioa areagotzeko zazpigarren teknika. Inguru zaratatsua, etxeko ikasgelaren egoera, arazo pertsonalak etab. kontzentrazioarako gaitasuna gutxitzeaz gain, motibazioan gainbeheratze garbia dakarte. Arazo horiek guztiak saihesteak ikasketa eta ikasketetarako jarrerak zeharo hobetzea dakar. Amaitzeko, norbereganako konfiantza izatea da ikasketetan arrakasta lortzeko beste elementu garrantzitsuetarikoa bat. Ikasleen etekin urriaren ohiko zioetako bat norbere gaitasunenganako konfiantzarik eza edota konplexuak izaten dira. Orain arteko ikasketa prozesuan ikasleak porrota jaso izanak, adoregabe edota uzkur sentitzea ekar diezaioke, bere gaitasunekiko konfiantza maila eskasa eta motibazio oso urria dakarzikiolarik. Baina gai sakon hori hurrengo baterako.

Gorka Aurre
prakagorri@prakagorri.eus

“Irakurriz hazten laguntzeak, pentsatuz bizitzeko gaitasuna ematen du”

Gorka Aurre



prakagorri
reading skills

Tel.: 944 915 763
prakagorri@prakagorri.es

**Egoitz Diaz** | Traña-Matiena, Abadiño, 1986 | Abadiñoako Txopoa areto-futbol taldeko entrenatzailea

“*Bigarren Erregionaleko liga irabazteko borrokan ibili beharko genukeela uste dut*”

Abadiñoako Txopoa talde berria da, baina esperientziadun jokalariekin osatuta dago, eta goian ibili gura dute



> ARETO-FUTBOLA J. Derteano
Jokalaria onak eta ilusio handia uztartzen ditu Abadiñoako Txopoa areto-futbol talde berriak. Halaxe uste du Egoitz Diaz entrenatzaileak. 200 bazkide eta 15 babeslegaz ekonomikoki ere sendo daude. Horiek horrela, Bigarren Erregionaleko onenen artean ibili gura dute estreinako denboraldian.

Zein da talde berri honen istorioa? Nola sortu da?
Christian Gulin taldekideak Elorrioko Buskantzan jokatzeko gogoaz zeukan. Bera ere Matienakoa da. Izen-ematea amaitu baino egun bi lehenago, taldea sortzea lortu zuten berak eta beste lagun batzuek. Hamabi bat lagunak osatzen dute taldea. Denak Durangaldekoak dira. Elorrioko bat eta Durango-ko bi kenduta, gainerakoak abadiñarrak dira.

Jokalariek nondik datoz?
Futboletik eta areto-futboletik, bietatik datoz. Sasikoa areto-futbol taldeetik etorritako batzuk daude, Abadiño futbol taldean aritutakoak ere bai... bien arteko nahasketa bat da.

Zuk zeuk ere bietatik edan duzu.
Bai. 18 urtera arte Abadiño futbol taldean aritu ostean, areto-futbolera pasatu nintzen. Bost urte eman nituen Mendibeltzen eta beste bost Abadiñoako Gaztetxietan taldean. Orain bi urte utzi egin nuen, lesioengatik. Urte batean, orkatila bat txikitu nuen, eta hurrengoan bestea.

Zelan batu zinen taldera?
Entrenatzen badut esperientzia. Orain 12 urte, Matienako Herri Eskolan 7 urteko umeak entrenatzen nituen. Gero, Abadiñoako kimuekin aritu nintzen, beste urte bitan. Abadiñoako Txopoa taldea osatu zutenean, Christianek deitu egin zidan eta taldera batuko nintzen galdetuz, eta onartu egin dut. Ilusioagaz nabil.

“*Birritan gertatu zaigu Emtesportek esandako orduan kiroldegira joan eta okupatuta egotea*”

Zelako taldea aurkitu duzu?
Egundoko taldea aurkitu dut. Ilusio handiagaz dabilta. Gainera, jokalaria onak dira. Talde polita eta eazortegaz apurka-apurka gora goazen.

Futboletik datozenen eta areto-futbolekoen artean eztabaidarik pizten da? Kirol hau ulertzeko ikuspuntu desberdinak dituzte?
Ez da eztabaidarik egoten. Futboletik datozenak ikasteko gogoarekin daude, eta areto-futbolekoak irakasteko prest.

Zu ere futboletik areto-futbolera igaro zinen. Egokitzapen prozesua zaila da?
Hasieran bai. Oso desberdinak dira. Kanpoaren dimentsioak, zoru mota, jokalaria kantitatea... aldaketa asko dira. Arlo fisikoan ere aldea dago. Areto-futbolekoen sarritan esprintak egin behar dira; futbolak, ordea, beste era bateko ahalegina eskatzen du.

Zer eskaini dezake taldeak bere estreinako urtean?
Bigarren Erregionalerako talde oso ona dago. Liga irabazteko borrokan egon beharko genukeela uste dut. Orain arte joka-

tutako lagunartekoetan denek berdina esaten digute: goian ibili behar dugula. Baina, tira, badakigu kirola zelakoa den, eta ligari hasiera txarra ematea nahikoa da animoa apaltzeko. Baina, gure helburua goian amaitzea da.

Beraz, ez zarete ondo pasatzeko bakarrik sortu?
Lagunartean ondo pasatzea gura dugu, zelan ez, baina talde ona daukazunean ondo aritu gura dugu, eta mailaz igo ahal bada, hobeto.

Non entrenatzen zarete? Eta non jokatuko duzue?
Matienako kiroldegian. Baina, arazo bat dugu udalagaz. Entrenatzeko orduak hartzera joan eta Emtesport-era bideratu gaituzte, enpresa horrek kudeatzen duelako kiroldegia. Birritan gertatu zaigu enpresakoek esandako orduan joan eta kickboxingeko okupatuta egotea. Ondorioz, ezin entrenatu. Datorren martitzenean batzar bat dugu Emtesporten, Abadiñoako Gaztetxien, Kickboxing taldearen eta gure artean. Ea denon artean arazo honi irtenbidea ematen diogun.

Sasoi batean, zoruagaz ere arazoak zeuden. Konponduta daude?

Bai, ondo dago. Ez da Landako Kiroldegian dagoenaren modukoa, baina nahiko ondo dago.

Nondik lortu duzue dirua? Zer babesle duzue?

Zortea dugu. 200 bazkide lortu dituzte lagun eta senitartekoen artean. 15 bat taberna eta enpresaren babesletza ere bai. Nik sarritan esaten diet Abadiñoako Gaztetxien nenbilenean horrelakorik ez genuela ezagutu, diru aldetik justu ibiltzen ginela beti.

Ekonomikoki egonkor dago taldea.

Egonkor baino gehiago; ekonomikoki oso ondo dagoela esango nuke. Dena behar federazioak jarritako trabei aurre egiteko!

Zein traba?

Lehen, esaterako, delegatu baten fitxa euro bat zen. Hamar euroren truke hamar delegatu zenituen. Orain, 64 eurora igo dute delegatu bakoitzaren fitxa.

200 bazkide aipatu dituzu. Partiduak ikustera erdiak batzen badira...

Taldekoen lagunak partiduak ikustera etortzen dira, eta giro ederra egoten da. Eta hori liga oraindik hasi ez dela! Jendea ilusioagaz dago.

Abadiñoako Gaztetxietan da herriko beste taldea. Derbia polita litzateke, baina momentuz itxaron egin beharko du...

Bai, maila bi gorago dabilta. Eurak jaitsi eta gu igo ezizko izango da. Hobe litzateke hemendik urte bira talde biak Maila Gorenean elkartuko bagina!

Aurten eskualdeko hainbat talderen kontra jokatuko duzue. Nortzuekin daukazu hartue-manik estuena?

Joan zen astean Gu Lagunak-en kontra lagunarteko partidu bat jokatu genuen. Zapatuan eta datorren astean Racing Tolosto eta Mendibeltzen aurkako beste partidu bana dugu. Denok elkar ezagutzen dugu, eta bata besteari laguntzen saiatzen gara.

Zornotzarrek Norvegiako elurretan bizitako abenturak ikusgai eguazteneko emanaldian

Mendiari lotutako dokumentalik onenetakoak erakutsiko dituzte hilaren 27 eta 28an Zornotza Aretoan

> MENDIA / J.D.

Andres Espinosa Gogoratuz zikloaren barruan, mendiari lotutako hainbat dokumental eskainiko dituzte datorren astean. Horietako asko jaialdi garrantzitsuetan saritutakoak dira. Zornotzarrek landutako bideo-lan bat ere eskainiko dute tartean; Norvegiako mendia eskia praktikatzeko hainbat zornotzarrek bizitako abenturak batzen dituen 10 minutuko bideo-lan laburra da.

Zornotza Mendi Taldean dabiltzan hainbat kide Norvegiako fiordoetara joan dira azken urte bietan, eta mendi eskia praktikatu dute. Grabazioak egiteko ere aprobetxatu dute irteera, eta horiek erabiliz sortu dute orduko bizipenak erakutsi eta gogoratzen dituen lana. Irailaren 28an, 20:15ean, erakutsiko dute Zornotza Aretoan.

Eguazteneko emanaldia mendiko eskiaren eta snowboardaren beste film labur batzuekin osatuko dute. Iazko Skimetraje

Zinemaldiko film laburrik esanguratsuenak erakutsiko dituzte.

‘Urzulo’ sariduna

Bezperan, irailaren 27an, Bilbao Mendi Film Jaialdiko hiru dokumental eskainiko dituzte, 20:15etik aurrera. Horietako batek, Urgozo lanak, zilarrezko Eguzkilore saria irabazi zuen iazko aldian. Aloña Mendi espeleologia taldeak Gipuzkoako

Eguaztenean Skimetraje Zinemaldiko film laburrik esanguratsuenak ere erakutsiko dituzte

Urzulo koban eta hango barrunbeetan 45 urtez egindako lana jasotzen du 35 minutuko dokumentalak. Horregaz batera, Sunakali (51 minutu) eta A line across the sky (40 minutu) dokumentalak ere eskainiko dituzte.



Hainbat zornotzarrek Norvegiara egindako irteerako irudia.

ADITUAREN TXOKOA

ALFONSO ARROIO

ETBko kirol kazetaria



Lezioa

Otsailean Algarveko Itzulian istripua izan eta hiru astera, hitzordua egin genuen elkarrikeria egiteko. Martxoko egun ilun, hotz eta euritsua zen. Urrunera, bazetorrela ikusi nuen, alboan Beñat Intxausti taldekide ohia zeukala. Pauso geldoa zekarten biek ala biek. Gerturatzen zihoazen heinean, nire barruan ikara handitzen joan zitzaidan. Buruan hasi, lepoan jarraitu eta gerrian amaitzen zitzaion gorputzari itsatsita zeraman burdina. Hotzikara sentitu nuen. Elbarri gelditzeko zorian izan zen Jonathan Castro.

Portugaletik Iruñeko ospitalerako bidaia inori ez ziola opa esan zidan. Ez zuela ordu haietaz gehiago gogoratu gura. Otoz-otoan, aho bilorik gabe, Tourrerako eta Olinpiar Jokoetarako prest egoten aha-legenduko zela esan zidan. Lau hilabete gogor izango zirela, baina kementa eta adorea soberan zituela. Ezin nuen sinetsi. Ia elbarri gelditu, eguneroko bizitzarako osatzea nahikoa ez, eta erronka galanta jarri zion bere buruari. Fisikoki ez ezik, psikologikoki ere ez baita erraza egoerari buelta ematea. Aitzitik, Castro ezagutzen dugunok badakigu kementa soberan duela. Ez da geldirik egotekoa. Inguruan dituenak bakarrik jakingo dute zenbat sufritu eta eman duen berritza bizikleta gainean profesional gisa aritzeko. Esan eta egin. Ekainean Suitzan itzuli, eta abuztuan Rion laugarren sailkatu zen. Lau segundogatik kendu zion brontzea Froomek. Gazitik hasi zuena, gozotik amaituko du sasoia. Europako txapelketako urrea garaipean bat baino gehiago da eta.

Guztiontzako lezioa.

Frades sasoian, Konako hitzorduari begira

Bigarren amaitu du Kanaria Handiko challengea



Gurutze Frades Kanaria Handiko probaren ostean. Moganeko Udala

> IRONMANA J.D.

“Ea indartsu nagoen eta Hawaiira pozik joateko moduan gauden”, zioen Gurutze Fradesek sare sozialetan Kanaria Handiko (Mogan herrian) challengearen bezperan. Asteburuko proba bigarren amaitu, eta “pozik” dagoela adierazi du iurretarrak. Sentsazio onak batu ditu Munduko Iron Man txapelketarako hiru astebururen faltan: urriaren 8an izango da, Hawaiiako Kona herrian.

Moganeko proban (1.9 km igerian, 90 bizikletan eta 21 korrika) Emma Bilham-ek bakarrik gaintu zuen (04.42.30). Frades irabazlearengandik zortzi minutura helmugaratu zen. Sarritan lez, atzetik aurrerako bidea egin zuen.

Kimu mailako futbol txapelketa Berrizen

> FUTBOLA J.D.

Berriz futbol klubak gazte-txoen artean futbola sustatzeko III. Berriz Cup txapelketa antolatu du asteburuan Berrizburun. Kimu mailako 16 taldek parte hartuko dute lau taldetan banatuta. Zapatu goizean eta arratsaldean ligaxketako partiduak jokatu dituzte. Sailkatzen diren 12 taldeek bigarren fase bat jokatu dute domeka goizean. Finala domekan, 16:30ean, hasiko da. Berriz, Elorrio eta Gertasport dira eskualdeko ordezkariak.

katerin ardoak
inaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

shopping days **BAUTISTA**

25 egun **%25** eko deskontuarekin

25 egunean prezio bereziak gure dendetako sail guztietan.
Urriaren 15era arte bakarrik

Zure erosketan %100 finantzatzen dugu, eta urtarrilean ordaintzen hasiko zara:
10 kuota sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe

www.bautistamuebles.com ☎ 94 672 77 00 info@bautistamuebles.com

Urbite Industrialdea, 4 - 2. pabilioia ABADIÑO (Eroski merkataritza-gunearen ondoan)

AS Bayonne errugbi taldeko jokalaria batzuen eraso sexistak salatu dituzte

Durangoko Rugby Tabernan gertatu da; biktimek jasandakoaren berri eman diote DRTri; klubak euren babesa eskaini die, “zero tolerantzia” aldarrikatu du eta ez du gehiago AS Bayonne gonbidatuko



Irailaren 3an gertatu ziren salatutako erasoak Rugby Tabernan.

> ERASO SEXISTA J. Derteano Irailaren 3an Durango Rugby Taldeak eta AS Bayonnek parti-

du bat jokatu zuten DRTk gonbidatuta. Ostean, AS Bayonneko jokalaria batzuk Durangotik

ibili ziren. Rugby Tabernan zeudela, Durangoko neska batzuek errugbilarien partetik erasoak jasan zituztela salatu dute. Eraso horien berri eman zioten DRTri. Klubak eraso jasandakoei babesa eskaini die, eta egoeraren aurrean hainbat neurri hartu ditu.

Neska koadrila honek gutun baten bidez helarazi zion DRTri zapatu gau hartan gertatutakoa. Hona erasoak salatzen dituzten gutun horretako pasarte batzuk: “Dantzan ari ginela hasi zen eraso, irain, ukitze eta bestelakoen festa... Bizkarrean musuak eta laztanak eman zizkiguten, behin baino gehiagotan ipurdia ukitu, ilean eskuak jarri, dantza egitera derrigortu, iraindu. Gutako bat komunean zegoela, lau jokalariren artean hartu eta ez zuten bakean utzi, neskak aski zela esan arte. Tinko jarri eta beraiegana joan ginen, aurre egitera. Gero, haietako batengandik tirakadak jasan

genituen”. Gutunean zehazten dutenez, “badakigu soberan zuen jokalariek [DRTkoek] ez zutela inongo erasorik egin, ez gatoz hori salatzeraz, baina gertatutakoaren erantzukizuna taldeak zeukala uste dugu”.

DRTk gutuna AS Bayonne-ra bidali zuen, eta astebetean erantzuteko eskatu zion. Ez dute erantzunik jaso.

Protokolo bat martxan

DRTk “erasoen biktima sentitu diren emakumei elkartasuna” adierazi die, eta “euren esanetara” jarri da, “behar denerako”. “Eraso sexista adierazten duen edozein jarrera salatzen dugu”. Horregaz batera, Durangora “berriro gonbidatuko ez dituztela” jakinaraziko diote AS Bayonneri. Azkenik, Rugby Taberna erasorik gabeko espazio libre izateko eta aitortzeko “beharrezko pausoak ematen” hasiko dira, eta “ekintza protokolo bat sortuko” dute etorkizunera begira.

32 eta 16 kilometroko ibilbide bana Elorrion

Erdella mendizale taldeak antolatuko du, etzi

> MENDIA J.D.

Erdella mendizale taldeak Elorrixoko XXI. Bira antolatu du domeka honetarako. Ibilbide bi prestatu dituzte: 16 eta 32 kilometroko bana.

Ibilbide biak Elorrioko plaza-tik abiatuko dira. Luzea 07:30ean hasiko dute. Udalatx izango dute punturik garaiena (1.117 metro). Kanpazar, Kañueta, Intxorta, Erdella, San Lorentzo eta Berrio-

zabaletatik ibiliko dira, besteak beste. Ibilbide laburra 09:00etan abiatuko da. Nebera, Memaia, Santa Luzia, eta Kanpazar ingurutik izango da.

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke: 06:30etik aurrera ibilbide luzerako, eta 08:30etik aurrera laburrerako. Aldez aurretik ere apuntatu daiteke erdellamt@erdellamt.com helbidean eta 675 713 708 telefonoan.

Durango 30 urteko auto klasikoaren topagune

Gaur eta bihar Landako erakustazokan batuko dira

> AUTO KLASIKOAK J.D.

Auto klasikoaren rallyaren 16. aldia asteburu honetan jokatu dute Durango bilgune duela, eta horri esker, autoen munduan mito bihurtu diren askotariko klasikoak bertatik bertara ikusteko aukera egongo da Landako erakustazokan.

Aurtengo aldiak dedikazio berezi bat du. Urteetan klasi-koen rallyko antolatzailea izan

den Maykel del Cid 2015 amaieran hil zen, eta rallya bere oroimenezkoa izango da.

Ferrari, Porsche, Lancia, BMW, Audi, Ford Scort... dira etorriko diren marketako batzuk. Gaur, 17:00etatik 21:00etara Landako erakustazokan batuko dira. Ondoren rallya hasiko dute. Muniketa, Lekeitio... ingurutik ibiliko dira. Bihar, baita Otxandio ingurutik ere.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA (gizonak)

Amorebieta - Albacete
· Domekan, 12:15ean, Urritxen.

EUSKAL LIGA (emakumeak)

Elorrio - Tolosa
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA (gizonak)

Abadiño - Astrabuduako
· Domekan, 11:30ean, Astolan.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Presion Break - Muskiz

· Domekan, 12:00etan, Berrizburun.

MAILA GORENA

Abadiño Gaztetxe - Sestao

· Domekan, 11:30ean, Traña-Matienako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA

Elorri Txiki - Otxartabe B

· Zapatuan, 16:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

EMAKUMEEN LIGA

Elorriko Buskantza - Kirol Aunitz

· Zapatuan, 18:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

> PILOTA

BAQUÉ TORNEOA

Kadeteak:

- Bermeosolo - (Fernandez/ Homaetxe partiduko irabazlearen kontra)

- Azkueta - (Lazakano/ Arakistain partiduko irabazlearen kontra)

Gazteak:

- Argazluza - (Beitia-De Valles partiduko irabazlearen kontra)

- Muguruza - (Kortazar/ Odiaga partiduko irabazlearen kontra)

· Irailaren 29an, 18:30ean, Iurretako pilotalekuan.

OLAZAR TXAPELKETA

Lau 1'erdian:

- Arrizabalaga - Etxegarai Binaka:

- Elezkano I - Etxebarria / Uriona-Uriondo

· Irailaren 29an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

SAN FAUSTO ZESTA TXAPELKETA

- Pau - Zumaia

· Zapatuan, 18:00etan, Durangoko frontoian

- Biarritz - Mutriku

- Donibane Lohitzune - Noain

- Bidart - Hondarribi

· Domekan, 11:00etan, Durangoko frontoian.



Smurfit Kappa

Central Forestal

48 urte

EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

Baserritarren eta Euskal Herriko
basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 IURRETA
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194

HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU

Animatu gure Haurreskoletao partaide izaten



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz plaza, 11 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goietia, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



OTXANDIOKO HAURRESKOLA
Mainondo, 7A OTXANDIO
Tel.: 945 450 997
otxandio.otxandio@haurreskolak.eus



ZALDUZUBIETA

ZALDIBARKO HAURRESKOLA
Autonomia, z/g ZALDIBAR
Tel.: 946 824 497
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus

**MATRIKULAZIO
DATAK**
urriaren 3tik,
urriaren 10ra

• www.haurreskolak.eus •

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotaritxueña Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalel bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalela 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriatutako. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatutako.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

ASKATASUN



• **EZIN HOBEA!** Bi logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoi. Garajea eta trastelekua. **239.900€.**

MONTEVIDEO



• **94 m² ERABILGARRI. ERABERRITU BERRIA.** 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. **230.000€.**

DURANGO



• **S. ROKE. AUKERA APARTA. ETXEBITZAK BERRIA ESTREINATZEKO 74 m² erabilgarri,** 2 logela. 2 komun ganbara eta garajea. Altuera ona. **220.000€** BEZA barne.

BARRENKALEA



• **700€ & Hileko. SALGAI.** Alokairua, erosteko aukerarekin. Etxebizitza ederra 67 m², 2 logela, egongela, sukalde amerikarra, komun bat, 2 balkoi, trastelekua. **199.000€.** €€

BERRIZ



• **DUPLEXA.** Lehenengo solairuan: Sukaldea esekitokiarekin, egongela zabal, hiru logela eta bi komun. Bigarren solairua: logela handia, egongela, txokoa, komuna eta 25 m²-ko terraza. Trastelekua eta garajeko lekua. **380.000€.** €

BERRIZ - GABIOLA



• 3 logela, 27 m²-ko egongela, Altzari guztiak jarrita. **225.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Dena berriatua. 115.000€.

- KURUTZIAGA. 3 logela. Balkoi. 130.000€.

- DURANGO 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. 85.000€.

- IURRETA. 3 logela. Igogailua. Berogailua. 115.000€.

- BERRIZ. 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Balkoi. Igogailua. Guztia berriatua. 115.000€.

ETXEBITZAK SALGAI

- SAN ROQUE: Apartamentua. Berria. Ganbara. Garajea aukeran. 153.000€.

- MATIENA. 3 logela. Komuna. 158.000€.

- MATIENA. Laubideta. Erdi berria. 2 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Esekutokia. Terraza. Garajea eta trastelekua.

- ASTEPE. 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Esekutokia. Trastelekua. 199.000€.

- MIKELDI. 3 logela. Komuna. Sukaldea-esekitokia. Egongela. Guztiz berriatua. Eguzkitsua.

- PLATERUEN PLAZA. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trastelekua. Eguzkitsua. Ikuspegi onak.

- OLLERIA. 100m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. 265.000€.

- ABADIÑO. Txanporta. 2 logela. Komuna. Ganbara. Kalera ematen duen garajea. 130.000€.

- ELORRIO. (Plaza). 103 m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea-egongela.

- ELORRIO. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa, egongela, trastelekua. Ikuspegi onak. Eguzkitsua. 129.000€.

- M. TORRE. 134m². 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trastelekua. 2 garaje. 270.000€.

- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzen sartzeko prest. 85.000€.

- IURRETA. Maspe. 3 logela. 110.000€.

- TROMPERRI. 4 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa. 243.900€.

- KOMENTUKALE. 4 logela. Komuna. Egongela. 125.000€.

- F.J. ZUMARRAGA. 100m². 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.

- IURRETA. ELIXALDE. BERRIA ESTREINATZEKO. 100m². 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela terrazarekin. Ganbara, eta garajea itxia. 245.000€.

- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trastelekua. Garajea. 270.000€.

- EZKI. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trastelekua. Zelaiarekin. 170.000€.

- AMOREBIETA. 70 m². 2 logela. Komuna. Berriatua. 160.000€.

- DURANGO. ATIKOA. 35m²-ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea.

- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. 140.000€.

- ZUMALAKARREGI. 65 m². (Bulegoa izateko egokia).

- TXALET. BERRIZ. 441 m². 475.000€.

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- F.J. ZUMARRAGA. 114m². SALGAI. 200.000€.

- IBAIZABAL. 50m². Guztia jarrita. 500€.

- KOMENTUKALE. 50 m². Guztia jarrita. 85.000€.

- IBAIZABAL. 55 m². Guztia jarrita. DENA ERAKUSLEIHOA da. Alokairua/ Salmenta.


- ERDIALDEAN. 228 m². Salmenta. 182.400€.

(saltzeko aukera Negozioa.)

- DURANGO. TABERNA martxan. 95m². 186.000€.

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarki**labur**rak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

Aramaio. Berriki etxea. Aukera asko. 140 m2 handitu egin daiteke. 3000 m2-ko lursaila . Eguzkitsua, Urkiola parke naturalaren ikuspegia. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669-06 4788- Iñigo Posta: bakarloi@hotmail.com.

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.

Garai. Baserria salgai. Oarbeaskoa, San Migel auzoa, 6. Garai. XVI. mendekoa. Tolare azpiegitura. Ondarea legez, Bizkaiko Foru Aldundiaren errehabilitaziorako diru-laguntza du. 10.000 m2-ko lursaila. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m2ko baratza, fruta-arbolak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Bifamiliarra egiteko baimena. Tel.: 639-83 34 89. Posta: jo.amantegi@gmail.com.

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m2 lursail. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

ERRENTAN HARTU

Durango. 3 lagunek etxebizitza bat alokatu nahi dugu. 3 logelakoa, ahalik eta arinen. Altzari guztiekin ahal izanez gero. Gehiengo prezioa 750-800 euro hilean, gastuak gure kontu. Tel.: 685-76 58 40 (Jon Ander), whatsapp-a edo deiak.

Zornotza. 33 urteko mutila naiz eta lan kontuengatik Zornotzan alokatzeko pisu edo logela bila nabil. Urri erdialdean sartzeko, epe luzerako. Tel.: 634-45 20 83 (Joseba), whatsapp-a edo deiak.

ERRENTAN HARTU

Durango. Neska euskaldun langilea, pisu edo logela bila nabil Durangon edo lurretan. Urrian sartzeko. Deitu edo idatzi (whatsapp): 665-72 53 38.

LOKALAKI

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Matienan 55 m2-ko lokala errentan eman nahi dut. Lehen 4 hilabeteak doan. Tel.: 649-21 93 91 (Nerea).

ERRENTAN HARTU

Durango. Lanerako leku bat eskaintzen da Durangoko San Inazio auzoko coworking

batean ingurumena, diseinua, ingeniaritza eta tankerako alorretan lanean dabilen jendearekin espazioa konpartitzeko. Prezio ona, giro atsegina eta euskalduna. Urtebeterako konpromisoa eskatzen da. Interesa duenak deitu edo whatsappetik idatzi: 659-68 02 17. saioazuazu3@hotmail.com.

GARAJE / TRASTEROAK

ERRENTAN EMAN

Durangaldea. Askatasun Etorbidea 20 zenbakian garajea alokatzen da. Tel.: 628-84 31 18.

Teknologia

GAINERAKOAK

SALDU

Hozkailu ia berria salgai. 100 euroan salgai. Tel.: 636-04 63 18.

Hozkailu ia berria salgai. 50 euro. Tel.: 636 04 63 18.

EMAN

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEO LANAK

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko edo bulegoak garbitzeko prest dagoen neska euskalduna naiz. Tel.: 697-50 00 19.

Durangaldea. Esperientziadun emakumea prest dago etxeko lanak egiteko (garbitasuna, sukaldean aritzeko, umeak zaintzeko, eta abar.) interesatuek deitu telefono honetara 663-54 31 34.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Unibertsitatean dagoen neska euskalduna, LHko eta HHko ikasleak zaindu edo eskola partikularrak emateko prest dago. Urtebeteko esperientzia duena. Ingeles maila altua eta titulua. Frantsesa eta alemana ikasten. Ordutegi eta egutegi zabala. Tel.: 689-75 40 39.

Durangaldea. Esperientziadun emakumea prest dago barneko edo kanpoko langile moduan lan egiteko pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketan. Tel.: 631-73 01 44.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko edo garbitasunerako. Kanpoko edo barruko langilea. Orduka baita. Tel.: 602-81 24 42.

Durangaldea. Neska arduratsua pertsona nagusiak edo umeak

zaintzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez. Tel.: 631-14 38 21.

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere jarduten dut. Tel.: 677-77 00 08.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko, lanaldi erdia, orduka... Gaez ere lan egiteko prest. Tabernak eta bulegoak garbitzen ditut. Tel.: 648-20 03 70.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko edo garbitasunerako. Kanpoko edo barruko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 631-86 44 26.

Durangaldea. Emakume euskalduna prest dago etxeko lanak egiteko, pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko. Tel.: 607-08 60 90/946-55 07 93.

Durangaldea. Petsonak zaintzen edota garbiketan lan egin nahi dut. Goizez eta arratsaldez orduka, edo gaez ere bai. Esperientzia handia daukat. Tel.: 631-61 83 20.

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko lana topatzen nabil. Barneko edo kanpoko langile moduan, orduka edota asteburuetan ere bai. Tel.: 634-74 85 31.

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago garbiketa lanak edo sukalde laguntzaile lanetan aritzeko. Esperientziarekin. Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Tel.: 632-11 05 65.

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanetarako lan bila nabil. Barneko edo kanpoko langile moduan, edo orduka. Erreferentzia onekin. Tel.: 658-99 50 63.

Durangaldea. Esperientziadun neska arduratsuak lan egin gura du. Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Barneko edo kanpoko langile moduan, edo orduka. Tel.: 631-90 19 87.

Durangaldea. Mutil arduratsua prest dago pertsona nagusiak zaintzeko. Etxeko lanetan aritzen naiz. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka ere bai. Gauetako zaintza. Baserrietan edo beste aktibitate batzuetan. Tel.: 631-63 27 43.

Durangaldea. Gizon euskalduna, klinikako zein etxeko laguntzailea prest dago adinekoei laguntza emateko (egun osoa) edota etxean laguntzeko (zahar egoitzan ere bai): erosketak egin, janaria egin, medikura eraman.... Tel.: 690-28 60 71. Durangaldean.

Durangaldea. Emakume arduratsua prest dago nagusiak zaintzeko asteburuetan.

Esperientzia eta erreferentzia onak. Tel.: 660-18 46 03.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil, kanpoko langile moduan. Gaez ere izan daiteke. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusien zaintzan. Esperientzi-agaz. Tel.: 632-29 70 30.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Kanpoko langilea. Erreferentzia onekin. Tel.: 628-00 22 17.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere aritzen naiz. Esperientzia eta paperekin. Astegunetan eta asteburuetan ere bai. Tel.: 632-92 81 08.

Durangaldea. Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Goizez, arratsaldez edo gaez. Tel.: 632-46 01 09.

IRAKASKUNTZA

Durango. Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99.

Durango. Ingeles klaseak jasotzeko 3 pertsona behar dira, 6 pertsonako taldetxoa osatzeko. A2-B1 maila. Astelehen eta asteazkenetan 18:00etatik 19:30era. Informazio gehiago jasotzeko deitu edo whatsappetu konpromisorik gabe (Tel.: 645-70 71 24).

Durangaldea. Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntza eta DBH partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67/946-81 39 40.

Durangaldea. Durangoko neska euskaldun esperientziaduna prest dago eskola partikularrak emateko edota goizez umeak zaintzeko. LH eta HH diplomatua, EGAduna eta ingeles titulazioarekin. Tel.: 637-95 17 30.

Durangaldea. 24 urteko neska durangarra, umeak eskolara eramateko, zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest. HHn eta LHn graduatua, umeekin esperientzia handia daukat, klase partikularrak urteetan zehar eman ditut, eskolan lan egin eta Irlandan au pair moduan egon naiz. nereas.sanchez@gmail.com Tel.: 628-83 27 10.

GAINERAKOAK

Mallabia. Gizon arduratsua esperientziagaz, baserri edo tailerretan edozein lan egiteko prest nago. Tel.: 660-91 85 49.

Durangaldea. Ile-apaintzailea prest dago etxerik etxe pertsona nagusiei ilea moztu eta bizarra

atontzeko. Ekonomikoa. Tel.: 607-08 60 90/946-55 07 93.

Durangaldea. Eraikuntzan laguntzaile moduan lan bila nabil. Arotza naiz. Loregintzan ere jardun dezaket. Baserriko lanean eta pertsona nagusiak zaintzen ere bai. Gidatzeko baimenagaz. Tel.: 631-54 41 25.

Denetarik

SALDU / EROSI

Bigarren eskuko biolina erosi gura dut. Bigarren eskuko laurden bateko biolina erosiko nuke. Tel.: 649-21 93 91.

GAINERAKOAK

GAINERAKOAK

Zornotza. Lursail baten bila nabil ortua jartzeko. Ahal bada doan. Tel.: 605-48 42 91.

Durangaldea. Lursail baten bila nabil ortua jarri eta barazkiak landatzeko. Ahal bada doan. Tel.: 666-69 10 03.

Ibilgailuak

BESTE IBILGAILUAK

SALDU

Karabana salgai. Oso egora onean. Bidaiatzeko aproposa. 2012. urtekoa. Karabanarekin batera, toldoa (alboko eta aurreko estalkiarekin batera), moberra, 2 bizikleta eramateko aukera, txalupa estaltzeko zorroa, lapurren kontrakoa, eltxo-sarea, eskaintzen dira. Tara 927kg eta mma 1.100kg. Matrikula darama. Ohe finkoa (1,90x1,40). Beste ohe bat, mahaia eta jarlekuekin egiteko aukera. Hobe ikustea. Kontaktua: 629-75 68 78. Whatssapez ere.

Aisia - kirola

KIROLAK

AURKITU

Entrenatzaile bila. 2004an jaiotako nesken saskibaloi talde bat entrenatzaile bila. Berehala lanean hasteko. Tel.: 670-21 49 24 (Marijo).

Familia - etxea

ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK

SALDU

Mahaia eta armairua salgai. Ikeako mahaia eta armairua salgai. Urtebete besterik ez dute, eta egoera oso onean daude. Armairua 60 euroren trukean eta mahaia ere 60. Biak batera erosiz gero, 110 euro. Interesatuok, deitu 628-61 40 34 zenbakira.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 24an, 20:00etan,
Berrizko kultur etxean

'Muxua'

Tantitaka Teatroaren ekoizpena da 'Muxua', 15 urteko Lorenzoren istorioa kontatzen duena. Umezurztegitik atera eta abegi-familia batez doa bizitzera Lorenzo. Antoniogaz maitemintzen da, baina Antoniok ez daki zelan erantzun Lorenzok adierazten dion maitasunari. Elena irakaslea da antzezlaneko hirugarren pertsonaia, egoeraren lekukoa.



Musika

:: DURANGO

IRAILAREN 24an

20:15ean, Benantzi Bilbao organistaren kontzertua, San Frantzisko monasterioan.

IRAILAREN 29an

20:00etan, Kantulagun ekimenaren aurkezpena, Plateruenean.

:: MAÑARIA

IRAILAREN 24an

22:30ean, The Romanticos, U2 tabernan.



Antzerkia

:: BERRIZ

IRAILAREN 24an

20:00etan, 'Muxua', Kultur Etxean.

IRAILAREN 30ean

18:00etan, 'Vademekum' antzezlan, Elizondo plazan.

:: ELORRIO

IRAILAREN 23an

22:00etan, 'Perplejo', Arriolan.

IRAILAREN 25ean

17:00etan, 'Pinocchio' umeentzako antzezlan, Arriolan.

IRAILAREN 30ean

22:00etan, 'Fakiu' obraren aurre estreinaldia, Arriolan.



Erakusketa

:: DURANGO

URRIAREN 16ra arte

Solde, Durango begietan, Enrique Diez Soldevillaren margolanak, Arte eta Historia Musean.

:: ELORRIO

IRAILAREN 30era arte

Kainaberak 20 urte, Iturri kultur etxean.

:: ZORNOTZA

IRAILAREN 30era arte

Bizkaiko GKEak ura eta saneamendua edukitzeko giza eskubidearen alde lanean erakusketa, Zelaietan.



Zinema

:: ZORNOTZA

IRAILAREN 27an

20:00etan, Andrés Espinosa Gogoratzen jaialdia: Bilbao Mendi Film Festival-en aurkezturiko 'Urzulo', 'Sunakali' eta 'A line across the sky' filmak, Zornotza Aretoan.

20:00etan, Andrés Espinosa Gogoratzen jaialdia: 'Skimetraje Play Pyrenees' eta 'Aurora borealis' filmak, Zornotza Aretoan.



Jaiak

:: DURANGO (Goienkale)

IRAILAREN 23an

19:00etan, Kuzaima taldearen dantza emanaldia.

20:00etan, Sugarri fanfarriak giroturiko poteoa.

22:00etan, Oihan Vega DJa.

IRAILAREN 24an

12:30ean, jolasak Berbaroren eskutik, eta electromexikanadak.

13:00etan, sardinada.

13:30ean, paella lehiaketa.

14:00etan, jubilatuen bazkaria.

16:00etan, igel eta mus lehiaketak.

19:30ean, batukada eta hildakoen aldeko meza.

22:00etan, DJ festa.

IRAILAREN 25ean

13:00etan, Durangoko Musika Banda.

13:30ean, patata tortilla lehiaketa.

14:00etan, Rantxera doinuz giroturiko poteoa.

17:00etan, Angelman zumba solidarioa.

19:00etan, txokolatada.

19:30ean, trikitixak.

:: ELORRIO (Kulotxa)

IRAILAREN 24an

11:00, txintxaunak, jolasak eta tailerrak.

12:00etan, triki poteoa.

14:00etan, bazkari herrikoa.

17:00etan, txintxaunak eta kale kulturaren emanaldia.



Ikastaroa

:: ELORRIO

IRAILAREN 30era arte

Erretzeari uzteko ikastaroan izena ematea, Iturri kultur etxean. 94 620 20 32.




Ondarea

:: DURANGALDEA

URRIKO ASTEBURUETAN

Gerediaga elkarteak antolatu dituen Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartzeko izen-ematea zabalik: 'ejardunaldiak@gmail.com' edo 673 005 981.



:: DURANGO | ZUGAZA

Bridget Jones' baby

- barikua 23: 19:30
- zapatua 24: 19:30
- domeka 25: 19:00

Los 7 magníficos

- barikua 23: 19:30/22:00
- zapatua 24: 17:00/19:30/22:30
- domeka 25: 16:30/19:00/21:30
- astelehena 26: 18:30/21:00
- martitzena 27: 20:00

El hombre de las mil caras

- barikua 23: 19:30/22:00
- zapatua 24: 17:00/19:30/22:30
- domeka 25: 16:30/19:00/21:30
- astelehena 26: 18:30/21:00
- martitzena 27: 20:00

No respíres

- barikua 23: 22:00
- zapatua 24: 22:30
- domeka 25: 21:30
- astelehena 26: 18:30
- martitzena 27: 20:00

Robinson. Una aventura tropical

- zapatua 24: 17:00
- domeka 25: 17:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

La estación de las mujeres

- zapatua 24: 22:00
- domeka 25: 20:00
- astelehena 26: 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Los hombres libres de Jones

- barikua 23: 20:15
- domeka 24: 19:30/22:00
- astelehena 25: 20:00
- astelehena 26: 20:15

Zipi y Zape y la isla del capitán

- zapatua 24: 17:00
- domeka 25: 17:00



Irailaren 30ean, 22:00etan, Elorrioko Arriolan

'Fakiu', aurrestreinaldia

Atx Teatroa taldeak 'Fakiu' bere azken lanaren aurrestreinaldia egingo du, Elorri. Fredi Paia bertsolariak idatziriko gidoia dauka antzezlanak, eta Belen Cruz, Oier Guilan eta Sandra Fernandez Agirre aktoreek dihardute oholztatik.

> BOTIKAK

BARIKUA, 23
09:00-09:00

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZAPATUA, 24
09:00-09:00

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-13:30

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Etxebarria
Montevideo etorb. 2 - Durango

De Diego
Intxaurrondo 22. - Durango

Campillo
Montevideo etorb.
24 - Durango

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

DOMEKA, 25
09:00-09:00

Etxebarria
Montevideo etorb. 2 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ASTELEHENA, 26
09:00-09:00

Navarro
Artekalea 6 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTITZENA, 27
09:00-09:00

Mugica
Andra Maria 9 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUAZTENA, 28
09:00-09:00

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUENA, 29
09:00-09:00

Campillo
Montevideo etorb.
24 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

> ZORION AGURRAK

 zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



Ermodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
 **Gozatu Gozotegia**

Zorionak, **Jon (644 znb.)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Zorionak, **Txelu**, Matienako eta Amatziko lagun taldearen partez!



> Gure etxeko printzesak 4 urte bete ditu. Zorionak, **Klaudia**, etxeko guztion partez! Jarraitu beti bezain alai eta pinpirina izaten.



> Zorixonak, marisorgin! Azkenien ailegau da zure egune! Ondo pasau, **Maier**! Muxubaboso Aratzek!



> Zorionak, **Haizea**! Egun ederra pasa dezazula. Musu handi bat aita, ama eta Aratzen partez!



> Zorionak, **Aihotz**! 5 urteko mutiko handia zara! Kolorinetako mosutsuek zuretzat. Asko maite zaitugu. Aitxitxe, amama eta izekon partez.



> Zorionak, **Lur**, zure 7. urtebetetzean! Gure lehen pentsamentuetan ere ez zinen hain zoragarria. Eskerrik asko zarena zarelako! Maite zaitugu etxeko guztiok!



> Irailaren 21ien **Garazin** lehen urtegune izen zan. Zorixonak etxekuon partez, batez be, Anen partez!



> **Onetak** eta **Elaiak** gaur 10 urte beteko dituzte. Musu handi bana gure poxpoliñei! Segi horren alaitsu.

> EGURALDIA

ZAPATUA	28° / 16°	
DOMEKA	17° / 12°	
ASTELEHENA	19° / 10°	
MARTITZENA	21° / 13°	
EGUAZTENA	24° / 13°	
EGUENA	18° / 13°	

IRABAZI
ASTEBURU
PASA
ZORAGARRIA!

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

UDAKO
2. ARGAZKI
LEHIAKETA



“Jendearen aurrean adoretu egiten naiz, gustatzen zait jendeak niri begiratzea”

Durango Fashion Gauan 2016ko udazken-negurako proposamenak aurkezteko pasarelara igoko dira

> AKUILUA Aitziber Basauri
Lehenengoz igoko dira pasarelara Irene Alvarez (Soraluze) eta Evan Serrano (Durango). Irailaren 30ean izango den Durango Fashion Gauak eman die aukera. Dendak Baik ekainean deitutako castingera aurkeztutako 70 lagunetatik 27 arituko dira modelo lanetan; modelo profesionalen alboan arituko dira Irene eta Evan ere.



Lehenengoz igoko zarete pasarela batera. Nolatan?

Irene Alvarez: Donostiako modelo agentzia batean nago. Hala ere, horregatik baino, moda mundu hori zelakoa den ikusteko aukera ona iruditu zitzaidalako anima- tu nin-

tzen. Betidanik gustatu izan zait moda.

Evan Serrano: Castingean parte hartzera animatu ninduen amak, eta bizipen berrietarako aukera ona iruditu zitzaidan.

Modu berezian prestatu zarete? Urduri zaudete?

I.A.: Ez! Egia esan, ez dut inoiz pasarela egin, eta ez dakit nola doan. Baina, ikasteko gogoagaz nago. Apur bat urduri nago, bai. Baina ez dut beldur eszenikotik. Eskalatu ere egiten dut, eta lehiaketetan aritzen naiz. Hala-koetan, jendearen aurrean adoretu egiten naiz, gustatzen zait jendeak niri begiratzea. Baina pasarelan desfilatzea ez dakit nola joango den.

E.S.: Aurreko batean, Madridreko Fashion Week ikusi nuen telebistan, amagaz (barrez). Baina, besterik gabe. Urduritasun pixka bat ere badaukat. Castingean ere oso urduri egon nintzen.

Gustatuko litzaizueke modelo profesional izatea?

I.A.: Badakit oso zaila dela, baina, bai, gustatuko litzaidake. Hala ere, pasarela baino, gurgu nuke argazkietarako modelo izan. Gehiago gustatzen zait. Gainera, ez dakit pasarelan aritu ahalko nuen, altueragatik.

Eta zu, Evan, erakartzen zaitu mundu honek?

E.S.: Egia esan, bai. Pasarelan aritzeko ez dakit... oso urduri jarriko nintzateke eta. Baina, GuTaGutarrak telebista saioan parte hartu dut. Ikastetxetik joan nintzen, eta dibertigarria izan zen. Baina, urdu-

ri ibili nintzen. Argazkietarako igual hobeto.

Modaren mundua zaila iruditzen zaizue, beraz.

I.A.: Zaila da, bai. Begira zenbat modelo dauden, eta gutxi helitzen dira onak izatera. Horixe da zailena, ona izatera heltzea. Gainera, modeloa egin egin daitekeen arren, uste dut jaio egiten dela gehiago.

E.S.: Zaila da, baina, dibertigarria ere bai. Gustuko duzuna egiten ari zara.

Modari jarraitzen diozue?

I.A.: Ez. Gustuko dudana janzten dut. Orain modan dauden arropa batzuk ez zaizkit gustatzen.

E.S.: Ni ere ez naiz modaren jarraitzailea. Denen moduan, gustatzen zaidana janzten dut. Baina baliteke, hasiera batean gogoko ez zenuen arropa bat gogoko izatea azkenean, hainbeste ikustearen ondorioz. Kanpai formako prakak ei datoz berriro, baina ez ditut jantziko. Ez dut uste! Ez zaizkit batere gustatzen. Gorroto ditut (barrez).

Zer behar da modelo izateko?

I.A.: Nik uste sen horregaz jaio behar duzula. Badaude modelo batzuk 'ukitu' hori dutenak. Mutil edo neska izan ere desberdina da. Neskek ibilbide laburragoa dutela ematen du.

E.S. Astronauta izateko ikasketak batzuk behar dira. Modeloak bestelako ezaugarriak ere behar dituela uste dut: gorpuzkera, aurpegia, ausardia... Honegaz jaio egiten zara. Txikitatik ikusten da hau edo bestea janzteko gogoagaz zatozen.

LAUHORTZA

JON ANDER RAMOS

Historialaria



Hausnarketa

Lerro hauek irakurtzean da-goeneko ia murgildurik aurkituko gara hausnarketa egunean. Hurrengo lau urteetan EAE gidatuko duen Lehendakaria aukeratu behar baitugu domekan. Baina gaur ez naiz hauteskondeez arituko, noiz-behinka historia ziprztintzen dituzten urteurrenez baizik.

Oraingo honetan memoria historikoa deritzonarekin bueltan nator. Urteurrena bobobila oraingo honetan, 80 urte. Zortzi hamarkada faxistek burutu zuten altxamendutik, baita Andikona plazan bizitako sufrikarioaz, eta domekan laurogei urte Durangok pairatu zuen lehendabiziko bonbardaketaz. Bost bonbardaketa horietatik lehena, alegia.

Intxortan, Gipuzkoako mugan kokaturik lerroa, Durangaldea helburu. Bilbo zerumugan. Gerrako lehen hilabeteak pasata, baita lehendabiziko sarraskiak ere. Otxandio bonbardaketa akorduan. Gipuzkoatik ihes hainbat miliziano, Durangaldeko herriek besoak zabalik hartu zituzten.

1936ko irailaren 25ean Gasteiz ingurutik lau hegazkinek izan zuten Durango jomuga, frontea eta Bilbo arteko lotura apurtu nahian. Lau bonba jaurti zituzten, eta horietako bat Ezkurdiko frontoian erori zen, 12 hildako eraginez. Hortaz aparte, Ermodoko kartzelan zeuden 22 preso, altxamenduaren aldekoak izatea egotzita, epaiketarik gabe fusilatutak izan ziren. Hortik aurrera, herria guztiz banaturik gelditu zen, hilabete batzuk geroago etorriko zena imajinatu ezinik. 80 urte igaro dira, eta goiz hartan gertaturikoa apenas da ezaguna herrian. Gure historia zaindu guran, deskuidoen lagatzen dugu pasarteren bat.

ARGAZKI
lehiaketa
2017



DURANGALDEA IRUDITAN

Durangaldeko hamahiru herriko argazki sortak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago: anboto.org webgunean.

SARIA 500€ Argazki sorta onenari